



Makrobiotika



Elikaduratik harago, bizi estiloa

- **Hirigintza** Bilbok ez du komunikazioa errazten, are gutxiago euskaraz
- **The Tree** Talde euskal-txinatarraren lehen diskoa
- **Martxel Toledo**, ESAIT «Gure asmoa da Vuelta ikusten dutenak jabetzea hau Euskal Herria dela, ez dela Espainia»
- **Kalifikazio agentziak** Zeinen atzaparretan daude merkatuak?



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

20170 Usurbil (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com





Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produksioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarte. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaila Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera ➤



**gizarte
kutxa**
zugandik zuguera



• **NON ZER** •

2011ko irailaren 11, 2.289. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Mikel Iturria:** «Sare sozialetan gabiltzanok denbora gehiagoz elkartzen gara bizitza fisikoan».
ARITZ GALARRAGA / 4

Asteko gaia

- **Makrobiotika.** Lehen gaixoentzat, orain denentzat.
ONINTZA IRURETA AZKUNE / 5

Pertsonaia

- **Paddy Woodworth:** «Euskara da euskalduna berezi egiten duena». MIEL A. ELUSTONDO / 12

Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** Eta zuk galdetzen didazu?
BEÑAT SARASOLA / 18
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENTA / 19
- **Lurralde antolaketa.** JAKES BORTAIRU / 20
- **Txandan** Tragediaren baltsamoa. EDU ZELAIETA / 20
- **Requiem II.** XIPRI ARBELBIDE / 21
- **Hiruko txikian** Irratia. JOXEMARI OSTOLAZA / 21
- **Bertso berriak** Ligatzeko jarriak. XABI PAYA / 22

Erdiko kaiera

- **Musika.** Txinako aukerak baliatu dituen mungiarra.
GORKA BEREZIARTUA / 23
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 26
- **Liburuak** XABIER ETXANIZ ERLE / 28
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 29
- **Ezpalak** JON TORNER / 30
- **Abarrak** JON TORNER / 31
- **Ihesi Bokale (Lapurdi)-Vieux Boucau (Landak).**
Aturriren ohe ohian. ITXARO BORDA / 32
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 36
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

Termometroa

- **Martxel Toledo, ESAIT:** «Espainiartasun sentimendua areagotzeko diru-laguntzak erraz ematen dira».
UNAI BREA / 39
- **Kalifikazio agentziak.** S&P, Moddy's eta Fitch: finantzen hirukote santua. DANIEL UDALAITZ / 42
- **Bilboko espazio publikoa.** Harriaren hizkuntz politika.
ZIHARA ENBEITA / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE,
XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Kriaren laugarren urtea eta Espainia erreskate atarian. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- Hitz handiak txikiekin gizenduz. IÑAKI ANTIGUEDAD / 50



“Sare sozialetan gabiltzanok denbora gehiagoz elkartzen gara bizitza fisikoan”

Mikel Iturria | aka Iturri

Ez dago Donostian kultur ekitaldirik bera gabe.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Dani Blanco

Hona euskal blogosferako gizon handia!

Barkatu? Horrela segituz gero beste abokatu baten bila jo beharko dut.

Tira, aitzindaria behintzat bai, edo beteranoa.

Lehenengo euskal blogaria Jabi Zabala izan zelakoan nago. Luistxo Fernandezek akuilatuta hasi ginen gu eibar.org elkartearen blog komunitatean, 2004ko uztailean.

Esan, mesedez, sarean behintzat euskaldunok ez gaudela hain gaizki.

Gure txikitasunean euskara Interneteko lehen 50 hizkuntzen artean dago. Gauzak egin dira, baina hobeto aritu beharko dugu etorkizun hurbilean.

Etorkizuna sarean badago, beraz, etorkizun beltza gurea?

Gure esku dago. Elkarri mokoka ibili beharrean elkarrekin aritzeko erreminta aparta da sarea. Gai izango ote gara? Horrela atera gaitzke bizirik ataka honetatik, baina euskaldunok zomorro fama handia dugu.

Blogean “agit & prop” egiten duzula dio, baina ez ote den denbora pasarako aitzakia.

Asko gustatzen zait niri etiketa hori. Eta horretan ari naiz, buru belarri.

Blogak zer aukera du, bada? Zerbait eraldatu, iraultza egin?

Eta poesiak? Kanta batek? Telebista ere erreminta ona da, baina gutxi batzuen esku dago eta kaka zaharra da. Blog bat bost minutuan

egin daiteke eta norbera da editorea inori baimenik eskatu gabe.

Sare sozialak ere badaude: Twitterren bakarrik bost identitate kudeatzen dituzu.

Bai, pertsonala eta Javier Ortiz zenaren kontuak kudeatzen ditut. Beste guztiak lanekoak dira. Ez zait hain zaila egiten. Gizon atipikoa naiz: bi gauza batera egiteko gai naiz.

Twitter, Facebook, Berriketan, Komunikariak: bizitza errealerako tarterik bai?

Sare sozialetan gabiltzanok besteok baino denbora gehiagoz elkartzen gara bizitza fisikoan. Ez dizkizut aste honetakoak kontatuko, badaezpada.

Bizitzarentzat ez dakit, baina Realarentzat hartzen duzu tarte.

Real zalea naiz, bai. Gorroto ditut Barça eta Madrid. Joan daitezela antzarrak ferratzera.

Eskerrak irundarra zaitugun!

Ez naiz irundar naturala: Ventas auzokoa bainaiz. Katekoa beste batzuentzat. Orain Landetxea deitzen diote. 24 urtez bizi izan nintzen Armadaren Kuartel aldamenen gurasoek zuten baserrian.

Eta jakitea Alardeagatik hasi zinela Interneten...

Ez dut inoiz parte hartu Alardean, baina gatazka ulertezina iruditzen zait. Bakoitzak egin dezala nahi duena besteen eremuan sartu gabe. Eta emakumeek atera nahi badute, arrunt ondo. Nik horren alde egin dut. ■

Makrobiotika

Lehen gaixoentzat, orain denentzat

Elikadura makrobiotikoa ez zaigu arrotz gaur egun. Lo arazoak, antsietatea edo pisu gehiegi duen jendea janari makrobiotikoa probatzen ari da. Alta, duela hogeit bat urte, gaitz larriak zituztenek baino ez zuten Ekialde Urrunetik datorren jan molde honen berri. René Levi maisuarengana jotzen zuten euskaldunek. Jexux Larretxea arantzarrak (Nafarroa) irakasle izan zuen frantziarra.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

GORPUTZEKO HAINBAT ATALETAN min zuen Jexux Larretxeak. Mina zerk eragiten zion ezin zuten asmatu sendagileek eta depresioan erori zen. Ondoren ikusmena galdu zuen. Buruan tumore koskorrak aurkitu zizkioten eta eba-kuntzarik ez ziotela egingo esan zioten, toki txarrean zeudelako. Medikuen ustez, azkarregi zahartu zen, 85 urteko aitonaren zelulak zituen.

Zorte txarra izan zuen. Halabeharrez, alabak Joxe Mari Etxenagusia pilotari errezildarrari buruzko artikulua irakurri zuen egunkarian. Pilotariak leuzemia sendatu zuen Frantziako zentro batean, makrobiotika izeneko elikadura-ri esker. “Botika hartu eta errezatu. Ezer galtzekorik ez neukan eta zentrorra joatea erabaki nuen”, dio Larretxeak. Duela urtebete hil zen

Makrobiotika ez da jate hutsa. Gorputzaren alde psikikoak eta emozionalak ere berebiziko garrantzia dute.





ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Jexux Larretxeak tumoreak zituen buruan eta itsu geratu zen. 17 urte daramatza elikadura makrobiotikoarekin eta oso ondo sentitzen da. Gaur egun kontsulta dauka hainbat herritan eta hitzaldiak eta sukaldaritza ikastaroak eskaintzen ditu.

René Levi maisuaren Saint Gaudens herriko zentrorra abiatu zen. Levi George Ohsawa makrobiotikaren sortzailearen ikaslea zen. Hauxe esan zion maisuak: “Nahiko berandu zatoz, baina sinesmen handiarekin hartzen baldin baduzu eta gorputzak pixka bat laguntzen badizu, aukera bat eduki dezakezu”. Arroza edo gari sarrazenoa jarri zizkion aukeran eta Larretxeak gariaren alde egin zuen. Hilabete luzez ez zuen besterik jan, gari sarrazenoa, mokadu bakoitza 300 aldiz murtzikatua eta ur tantarik ez. 84 kilo zeuzkan Saint Gaudenseko zentrorra joan zenean eta egunean kilo eta erdi galtzen hasi zen: “Ahultzen ari nintzen, baina era berean ondo sentitzen nintzen”. Halako batean ikusmena berreskuratu zuen. Urtebetez Frantziara joan-etorrian ibili eta gero 42 kilo pisatzen zituen eta poliki-poliki, gariatz gain bestelako jakiekin hasi zen. Hobetzen hasi zen... “gaur arte”. 17 urte igaro dira.

Duela 80 urte bezala jango bagenu...


Elikadura eta bizimodua, dena aldatu zuen Jexux Larretxeak. Izugarrizko frustrazioa sentitu zuen lagunartean, gizartean oro har, bereganatu nahi zituen ohiturek gainerakoen egunerokoarekin talka egiten zutelako. Lagun min bat eta beste apur batzuk ditu gogoan, makrobiotikaren bideari lotu zitzaizkionak. Bost urtean 500 bat lagun zirela dio.

Duela 13 urte makrobiotikaren bideari egunaren 24 orduak eskaintzea erabaki zuen. Dietetika eta Nutrizioa ikasi ditu eta gaur egun hainbat herritan kontsulta dauka. Sukaldeko ikastaroak eta hitzaldiak eskaintzen ditu. Hori xe du asmo nagusia, makrobiotika ahalik eta

Dieta makrobiotikoa lau hitzetan

Elikadura makrobiotikoa *yin* eta *yang* izeneko oreka-printzipioan oinarritutako jan moldea da. Ekialde Urruneko hainbat sukaldaritza ohituren moldaketa da. Tradizio horietan ohikoa da elikadura, medikuntza eta espiritualitatea nahastea. Elikadura mota horrek zerealak ditu oinarri. 1930eko hamarkadan eman zuen makrobiotikaren berri George Ohsawa filosofo japoniarrak Europan.

Yin (hedapena) eta yang (uzkurdura). Kontzeptu horren arabera, unibertsoan dagoen guztia dualtasunean oinarritzen da. Itxuraz elkarren aurkakoak, eta era berean osagarriak, diren bi indar daude gauza guztietan, *yin* eta *yang*. Adibide dira bizitza eta heriotza, beroa eta hotza, edo gorputza eta adimena. Etengabe alda-



tzen ari dira bi indarrak eta helburua bien arteko oreka lortzea da. Elikadura makrobiotikoak horixe bilatzen du, janarietan oreka lortzea, ondorioz giza gorputzak ere oreka lor dezan.

Norbanakoak dauzkan helburuen edo beharren arabera –esfortzu fisikoa handia egitea edo lasai egotea, adibidez– elikagaiak konbinatuko ditu eta horretarako jakien *yin* eta *yang* hartuko ditu kontuan. Makrobiotika ez da dieta begetarianoa, denetarik onartzen du. Makrobiotikak dio pertsona bakoitza bakarra dela eta norbanako bakoitzak bere makrobiotika aurkitu behar duela. Egia da, hala ere, zereal integralak proposatzen direla dietaren oinarri, horien *yin-yang* oreka delako giza gorputzarenera gehien gerturatzen dena.

jende gehienarengana zabaltzea. Ezagutza maila ez da duela hoge urtekoa, orduan gutxi batzuk zuten entzuna makrobiotika hitza eta makrobiotikara jotzen zutenek gaitz larriren bat zeukaten. Gaur egun Gipuzkoan 40.000 makrobiotiko inguru egongo direla kalkulatu du. Hego Euskal Herriko herrialdeak ordenean jartzen hasita Gipuzkoa, Nafarroa, Bizkaia eta Araba aipatu dizkigu.

Inguru hauetan gaixo asko egotea eta makrobiotikara jotzea ez da harritzekoa Larretxearen ustez. Nonbait garraztasun askoko jakiekin ohitu gara, muturreko jakiak aukeratzen ditugu eta neurrigabe jan. Jakien arteko oreka bilatzen du etengabe makrobiotikak, eta euskaldunon usadioa izan den eta oreka hankaz gora botatzen duen adibidea eman digu: sagardoa eta gazta nahastea. Ez dauzka, hala ere, Euskal Herriko hainbat jan ohitura saltzeko. Larretxeak orain dela 80 urte baserrian oinarritzko jakiak ziren artoa, garagarra, garia, artatxikia... ditu gogoan: “Ez dira hainbeste urte, zerealak funtsezko elikagai ziren, guk orain aldarrikatzen dugun moduan. Hori bai, goizean, eguerdian eta gauean txerria jaten zuten garai hartan”.

**Jexux Larretxeak urtebetez
Frantziara joan-etorrian ibili eta
gero 42 kilo pisatzen zituen eta
poliki-poliki, gariak gain
bestelako jakiekin hasi zen.
Hobetzen hasi zen... “gaur arte”.
17 urte igaro dira**

Gaixo daudenak, eta ez daudenak

Jexux Larretxea René Levi maisuarengana joan zenean, duela 17 urte, Saint Gaudenseko zentroan erdiak euskaldunak ziren, besteak espainiarrak, frantziarrak eta italiarrak.

Gaitz larriak zituztenak zeuden han. Orain kontuak bestelakoak dira. Euskal Herrian bertan, makrobiotikaz asko sakondu duen jendea dago eta bertakoak ari dira aholkulari lanak egiten, sukaldeko ikastaroak eta hitzaldiak ematen. Larretxearen ustez, gaur egun erdia baino gutxiago dira kontsultara gaitz larria dutelako hurbiltzen direnak. Pazienteen erdia baino gehiago “batzuk lehenago eta besteak geroago, gaitz larriak edukitzeko bidean direnak dira”. Lo egiteko arazok dituzte; antsietate handia daukate eta asko jaten dute; txiza edo kaka egiteko arazoak dituzte; haurra izateko arazoak dituzte. Larretxearen kontsultara adin guztietako jendea doa, eta batik bat gazteak hurbiltzeak pozten du Oiartzunen bizi den arantzarra, “haiek dira etorkizuna eta haiek aldatu behar dute biziatuta dagoen hau guztia, jateko modua, bizimodua... Dena”.

Vitoria-Gasteiz

«Tamalez ez nuen ikastolan ibiltzeko aukerarik izan, baina hamasei urterekin euskara ikastea erabaki nuen eta horrek asko aberastu nau»

RAKEL VIVANCO
37 URTE. GASTEIZ (LAKUA)

**ELEBIDUNA NAIZ
ABERATSA
NAIZ**

EUSKO INBURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ESKA
EUSKO INBURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ESKA

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Jon Intxausti, makrobiotikoa

«Nik esango nizuke zerorrek esperimentatzeko hilabete batean»

Donostian bizi den villabonatarak (60 urte) gaixo zegoen laguna bideratu zuen makrobiotikara. Lagunarekin batera berak ere elikadura molde bera egitea erabaki zuen segituan.

Laguna ohartarazi eta zeu ere makrobiotiko bihurtu zinen.

Lantokiko lagun bati minbizia detektatu zioten eta neuk esan nion bazela alternatiba bat. Jexux [Larretxea] duela 35 bat urtez geroztik ezagutzen dut eta lagunari esplikatu nion nola gaixotasun larri batetik atera zen Jexux makrobiotikaren bidez. Jexuxi esan nion ea lagunaren etxera joango zen eta baietz. Esan zion zer zen janari hori eta zer eragin zeukan gorputzean. Laguna nahiko konbentzitututa gelditu zen eta biok joan ginen Saint Gaudens aldera, 1996-97an. Hilabete bat edo gehiago egin zuen han eta gaixotasunean aurrerapen dezentea egin zuela ikusi zuen.

Hura ikusita pentsatu nuen gaixo ez zegoenarentzat ere ona izango zela janari hori. Probatu behar nuela erabaki nuen.

Nola hasi zinen?

Lagunarekin batera hasi nintzen dieta egiten, 1997an. Hilabeterako hara [Saint Gaudensera] joan nintzen neu ere eta hantxe ibili nintzen sukaldean ikasten, janaria prestatzen, esperimentatzen. Esperimentua da garrantzitsuena mundu horietan. Ez du balio entzuteak, ikus-teak edo irakurtzeak, gorputzean daukan eragina probatu behar da. Nik probatu nuen eta esan nuen: "Hau da nire bidea".

Hasieran nahiko gogorra egin zitzaidan, baina pen-



DANI BLANCO

"Makrobiotika ezaguna egin da, baina teoria gehiago ikasi behar da, zeren kontua ez da arroza jan eta kito".

tsatu nuen "bestek egiten badute nik ere egingo diat". Aldaketa gauetik egunerakoa da, azukre txuririk ez, kaferik eta alkoholik ez... baina igartzen nuen askoz hobeto nenbilela. Bi astetan nabaritzen da. Aurreneko astean, nola aldaketa handia den, ahulduta gelditzen zara. Pixkana egokitzen doa gorputza eta oso ondo sentitzen zara.

Makrobiotikoak ez direnen inguruan nola moldatzen zara?

Egunerokoa makrobiotikoa egiten dut, astebukaeratan lasaiago edo librexeago ibiltzen naiz. Lagunekin afaltzera-eta joaten naiz eta behin-goagatik ez da ezer gertatzen.

Beraz, jan molde hau aholkatuko zenuke?

Bai, bai, ehunetik ehunean. On egin dit niri. Nik esango nizuke zerorrek esperimentatzeko hilabete batean eta esango duzu: "Kontxo, honek eragina bazeukak". Intxaurrondon hortxe daukazu 1999an ireki genuen jatetxea.

Sukaldean aritzeko erraza al da?

Nire ustez oinarritzkoa egitea erraza da eta ez da garestia. Agian denbora pixka bat behar da sukaldean aritzeko.

Makrobiotikaren teoria eta praktika uztartzen saiatzen zara.

Makrobiotika ezaguna egin da, baina teoria gehiago ikasi behar da, zeren kontua ez da arroza jan eta kito. Duela gutxi adibidez, Ohsawaren [George Ohsawa makrobiotikako maisu japoniarra] liburu bat irakurri eta aztertu dugu taldean.

Sabela eta emozioak

Makrobiotika ez baita jate hutsa. Ekialde Urruneko sukaldeko tradizioen moldaketa da, *yin* eta *yang*en arteko orekan oinarritua. George Ohsawa filosofo japoniarrak Japoniatik Europara ekarri zuen elikadura, medikuntza eta baita espiritualitatea ere lotzen dituen ezagutza hau. Larretxeak azaldu digunez, gorputzak hiru zati dituela kontuan hartu behar da: alde psikikoa, fisikoa eta espirituala edo emozionala. Hirurek dute garrantzi bertsua, baina alde fisikoa ondo egon behar du beste biak jorratu ahal izateko. Dieta makrobiotikoari esker gorputza bere

onera etortzen hasiko da eta poliki-poliki gizakiak galdua duen sena errekuuperatuko du gorputzak, alegia, gorputzak berak adieraziko digu une oro jan edo edan nahi duen ala ez, zer jan nahi duen... Jateko modua bideratuta, alde psikikoan eta emozionalean eragin daiteke, horiek ondo ez badira gaixotasunak ez baitira uxatuko.

Hirukiaren garrantzia azpimarratzeko adibidea jarri digu: "Gaur egun gizonak eta emakumeak berdinak gabela esaten da, baina askatasun hori ez dago bideratuta. Osasunean min handia ari da egiten. Gizonok, orokorren, ez gaude irekita, ez dugu aldaketa egin eta ema-

kumeek bizimodu oso gogorra daramate; kanpoan lana, etxean lana, seme-alabak...". Bizimodu horrek eragindako pazienteak al dauzkan galdetu diogu: "Emakume asko, eta ondorioz, seme-alabak ere bai".

René Levik utzitako hutsunea

Iaz hil zen René Levi maisua. Larretxearen ustez, Levi frantziarrak hutsunea utzi die, "gure aita zen. Orain Saint Gaudens-en ari direnak oso ondo ari dira, baina jendea Levirengatik joaten zen hara. Jainko txikiak egiteko ohitura badaukagu euskaldunok eta Levirekin hori gertatu da. Jendeak segitzen du hara joaten, baina lehen baino gutxiago. Gainera, Levik lantaldean gaztelania hitzunik zituen eta horrek ere errazten zuen komunikazioa. Bestalde, kontuan izan behar da urrutira joan behar dela". Oraindik gauzatu ez badute ere, urtetan buruan darabilten ideia kontatu digu Larretxeak, aterpetxe moduko bat atontzea hemen bertan. 120 bat lagunentzako litzateke, bertan jan eta lo egiteko aukerarekin. Edozein adinetakoentzako egonaldiak, hitzaldiak, sukaldaritza ikastaroak... Han jango liratekeen laboreak beraiek ekoiztuko lituzkete

Gaur egun erdia baino gutxiago dira Larretxearen kontsultara gaitz larria dutelako hurbiltzen direnak

erositako lurretan. Aterpetxe horretan egonaldia egitea ondo etorriko litzaiokeen emakumearen adibidea jarri digu: minbizia dauka emakumeak. Dieta makrobiotikoa egiten hasi nahi du. Etxean senarrari eta seme-alabei egunero janaria prestatzen die. Dieta berria egiten hasiz gero bi jan motak prestatu beharko lituzke, eta besteentzako sukaldean ari den bitartean betiko usain goxoen tentazioa uxatzen lanak izango ditu. Litekeena da gainera, etxekoek dieta berriarekiko federik ez izatea. Gaixo horiek, tratamenduaren hasieran behintzat, aterpetxea eskertuko luketela uste du Larretxeak. Gaitz larria izanda dieta gogorra egiteko hiru bal-

dintza aipatu dizkigu: egitera zoazen horretan sinestea, norberaren gorputzak aldaketarako nahikoa indar izatea eta inguruko laguntza.

Medikuntzaren ikuspegitik makrobiotikak ez du inolako homologaziorik, baina makrobiotikoak gero eta gehiago dira. Gaitz larriak jota daudenek, beste heldulekurik ezean, Ekialde Urrunetik datorren jan molde horren ateak jotzen dituzte. Gero eta gehiago dira orde, hobeto sentitzeko, argaltzeko edo jan molde zabarra alboratzeko makrobiotika aukeratu dutenak.

publizitatea

Helduen Euskalduntzearen 2011-2012 ikasturtea inauguratuko du Eusko Jaurlaritzak

Irailaren 16an Helduen Euskalduntzearen 2011-12 ikasturteari ongi-etorria emango dio Eusko Jaurlaritzak Donostiako Miramar jauregian egingo den aurkezpen-ekitaldian. Bertan izango dira, besteak beste, Blanca Urgell Kultura sailburua, Lurdes Auzmendi Hizkuntza Politikarako sailburuordea eta Iñaki Uribe HABEren zuzendari nagusia.

Ekitaldi horretan, HABEk urriaren 8tik 18ra bitartean egingo den matrikulazio-kanpainaren berri emango da. Aurten *Nik ere nahi dut* izango da matrikulazio-kanpaina horren leloa; izan ere, nahia edo gogoia izanez gero, edonoren esku dago euskara ikastea, aitzakiarik gabe. Eta aurreko urteetan gertatu den moduan, aurten ere jende-andanak izena ematea espero da: gazteek, helduek, nagusiagoek, emakumezkoek, gizonezkoek, etxekoandreak, langabeek, ikasleek, irakasleek, teknikariek... Guztiek dute lekua HABEren barnean dauden euskaltegi pribatueta eta udal-euskaltegetan.

Aurkezpen-ekitaldi horretan 2010-II ikasturteko datuak ere helaraziko dituzte: ikasle-kopurua, ikasleen profila, lurraldeka nola banatu diren... Gogoan izan, 2009-2010 ikasturtean, esaterako, 39.373 ikasle ari zela euskara ikasten, 2008-2009an baino 416 ikasle gehiago.

Bestalde, aipatu beharra dago Gobernu Kontseiluak onartu duela 2010-II ikasturtean HABEren euskara-mailak edo haren baliokideak gainditu dituzten ikasleentzako laguntzak jasotzeko baldintzak eta deialdia egiten duten HABEren zuzendariaren Ebazpena. Aurten milioi bat euro erabiliko da. Laguntza jaso ahal izango dute 2010eko martxoaren 23tik 2011ko abuztuaren 31ra arte euskaltegi batean matrikulatuta izan diren ikasleek, baldin eta HABEren euskara-mailak edo haren baliokidek egiaztatu badituzte 2010eko bigarren deialdian edo 2011ko lehen deialdian.



MUNDUORO
euskaraz

Ignacio Azurza, makrobiotikoa «Ezagutzen ez duen jendeak uste du arroza jatea baino ez dela»

Hamar bat urte daramatza Ignacio Azurzak (Zarautzen bizi den tolosarrak) elikadura makrobiotikoarekin. Jon Intxaustiren moduan inolako gaixotasunik izan gabe hasi zen dieta horrekin.

Ez zeunden gaixo, makrobiotikarekin hasi zinenean.

Ez. Senitartekoek ikastaroa egin zuten Tolosan eta ondoren nik sukaldaritza ikastaroa egin nuen Intxaurrondon [Donostia] Jexuxekin [Jexux Larretxea]. Geroztik ikastaro gehiago egin ditut. Makrobiotikara sukaldearen bidez sartu nintzen eta konturatu nintzen hori baino askoz gehiago dela, filosofia bat.


Makrobiotika ezagutzen ez duenari ere gauza bera gertatzen al zaio?

Jendea sendatzeko edo argaltzeko hurbiltzen da makrobiotikara, baina elikadura hutsa baino ondo sakonagoa da. Egiazki kosmologiaz ari gara, mundua ulertzeko moduz. Elikadura bidearen zati bat baino ez da.

Ezagutzen ez duen jendeak uste du arroza jatea baino ez dela, eta gainera uste dute gutako askok gabeziak ditugula. Normala da horrela pentsatzea, ez baduzu ezagutzen zertaz ari zaren. Elikadura makrobiotikoa eta atzean dagoen filosofia ez badituzu ezagutzen ez dakizu, adibidez, zergatik sendatzen zaren.

Zergatik hasi zinen dieta horrekin?

Egia da osasun arazo larriak dituztenak direla makrobioti-



“Farmaidustriari ez zaio batere interesatzen esatea arroza eta barazkiak janez gaixotasunak senda daitezkeela”.

DANI BLANCO

kari heltzen dioten gehienak. Ni ondo sentitzen naiz horrela, askoz arinago eta erneago nago, lo gutxiagoren beharra daukat eta hobeto hartzen dut atseden, energia gehiago daukat. Egia esan, askoz hobeto zaude, diferentzia ikaragarria da. Eta gainera, bizitzak ikuspegi espiritualagoa hartzen du.

Azaldu hori mesedez.

Zaila da azaltzea. Nola aurki dezakezu bizitzaren dimentsio espiritual? Bada, ez dakit. Makrobiotika pixka bat ulertzen baduzu konturatuko zara gorputza eta espiritua bat direla. Elikaduraren bidez, gorputza bere onenean jartzen duzu, eta horri esker, energia gorputzean zehar askoz hobeto dabil. Zure bizitzak

dimentsio espiritualagoa hartzen du.

Makrobiotika indarra hartzen ari dela uste al duzu?

Bai, olio orban bezala ari da, ahoz aho dabil. Arraro begira diezazukete, baina askok ezagutu dute medikuak etsia eman dion gaixoa eta makrobiotikaren bidez sendatu dela ikusi dute. Horrek zer pentsatua ematen die.

Zabaltzen segitzeko bi oztopo ikusten ditut. Batetik, medikuntza tradizionalak elikadurari sendabiderako garrantzi gutxi ematen segitzen du, nahiz eta mugitzen hasiak diren. Bestetik, farmaidustriari ez zaio batere interesatzen esatea arroza eta barazkiak janez gaixotasunak senda daitezkeela. Hondamendia litzateke haientzat.

Atxurra Hotela

Arronategi auzoa z/g
Bermeo (Bizkaia)
Tel. 944 654 404
www.hotelatxurra.com

EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

eskaintza berezia



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak
- Iñaki Alberdik eginak

 **argia**

Informazio gehiago nahi baduzu: **ARGIA**

Industrialdea 15 • 142 P.K.

LASARTE-ORIA 20160

Telefona 943 37 15 45

posta-e: denda@argia.com

www.argia.com/denda/makilak



Paddy Woodworth

«Euskara da euskalduna berezi egiten duena»

Horra kazetaria, horra idazlea, horra bisitari irlandarra... sobera ez ezagutzeko moduan Euskal Herrian barrena ibili eta liburua ingelesez idatzitakoa. *The Basque Country*. Francoren heriotza urtean gurerara heldu eta harrezkero lotura eten ez duena.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Zaldi Ero

Zer ari zinen zarata artean?

Horixe dela gutxien gustatzen zaidana, nazka ematen didana. Zarata. Zarata tabernan, telebista zarata, txanponjaleen zarata... Horixe da, esate baterako, Iparretik Hegora dagoen aldeetako bat: hemen, sartu jendea tabernan, eta buila, eta kinki eta kanka, plater eta kristal hotsa, Iparraldean ez da horrelakorik. Eta gure kasuan, berriz, Irlandan, pub batean sartu eta zer edo zer hoska eskatzea oso heziera txarrekoa da. Irlandan, belarrondokoa emango zidan zerbitzariak. Larri ibili! Hemen, aldiz, buruko mina egin arte dago zarata! Niri, horretan, budismoak baduela arrazoi zati bat iruditzen zait, isiltasuna garrantzizkoa dela, alegia, ez dela posible aldi berean bost leku ezberdinetan egotea. Zenbait euskal musikariek ere horixe esana didate: Irlandan hemen hainbeste bizio dugula zoritxarrez, baina han, zuzeneko musika entzuteko kulturari bizirik eutsi diogu: etxe ondoan, Irlandan, badut taberna bat, barra luzea duena, L itxuraduna. Alde batean, zuzeneko musikarako espazioa, jo nahi duenak bertan jotzeko, txandaka. Alderdi hartan jartzen den edaleak badaki han isil antzean ibili behar duela. Badaki, legerik ez badago ere. Tabernako beste muturrean, berriketarako aldea, bozgorailuetatik datorren musika tamainako bolumenean entzuteko aukeran. Era hori gehiago gustatzen zait, taberna —nire ustez— berriketarako da-eta, edo irakurtzeko, edo garagardoa edanez batera honetaz eta hartaz pentsatzeko.

Tabernan irakurri? Ikusi duzu inor irakurtzen Euskal Herrian?

Ez da galdera makala! Askorik ez. Neure buruari galdetu beharko nioke ea jende asko ikusten ote dudan irakurtzen han, Irlandan. Esaten zuten, garai bateko Sobiet Batasunean asko irakurtzen zuela jendeak, metroan zihola. Bai, Londreskoan ere bai, baina Sobiet Batasunean bereziki zuten fama. Nire liburuan idatzi nuen ez —Joseba Zulaikari hartutako ideia bat, inondik ere—, “Europako indioak bagina bezala ikus gaitzaten nahi dugu, eta, une berean, kontinenteko kulturarik

Nortasun agiria

Paddy Woodworth (Bray, Irlanda, 1961), kazetaria, *Irish Times* egunkarian lan egin zuen 1988tik 2002ra. Bi liburu ditu Euskal Herriaren inguruan argitaratuak: *Dirty War, Clean Hands: ETA, the GAL and Spanish Democracy*, 2001ean, eta *The Basque Country, A Cultural History*, 2007an, biak ere kritika ezin hobeak jaso dituztenak. Orain berriz, ingurumenari buruzko gaiak aztertzen ari da Chicagoko Unibertsitatearentzat. Era berean, han eta hemen, Erresuma Batuko nahiz Espainiako irrati-prentsetan idatzi ohi du. Ibilaldiak antolatu ohi ditu urtero Euskal Herrian barrena, amerikar nahiz ingeles turista talde txikientzat (www.sansebastianfood.com), bertako gastronomiak eta kulturak Ipar eta Hegoan dituen bereizgarrien arrastoan.





postmodernoena bagina bezala”. Kultura honen ezaugarriak behinena da, aberastasuna! Amerikarrak ibili ditut nire ondoan uztailan, eta harriturik zeuden, hemengo herrietan ikusi duten aberastasun maila zabaldua. Eta neurrigabeko kontsumoa. Euskal literatura irakurtzen saiatzen naiz –Bernardo Atxaga dut irakurria, gehienbat–, eta hemen go lagunekin hizketan, ez dutela irakurtzeko ohiturarik. Edo, eman dezagun, nork irakurtzen du hemen Pio Baroja, nork Unamuno? Hori ere interesgarri zait: euskarazko literatura eta gaztelaniazko euskal literaturaren arte-

Euskal herri tourra

“Tourra zuzentzen dut Euskal Herrian barrena, gidari lanak egiten ditut, eta, zinez, egiten dudana lanik esker onekoena zait. Euskal Herria ezagutu nahi duen jendea irakusten diot herrialdea –interesa duenari, beraz, ordaindu ere horrelaxe egiten baitu–, eta maite ditudan zoko eta bazterrak irakusten dizkiet. Ez da pribilegio makala, horratik! Jakina, hainbat adiskidek laguntzen didate lantegi honetan, Lesakako Rafael Eneterreagak, kasu. Harriz harri irakusten digu Lesaka, bertako etxeen historia eta berezitasunak oro. Plazer itzela da, atsegin hutsa. Erronka ere bai, idazteak ez dituen zailtasunak baititu, baina era berean, nik nezakeen atsegini handiena”.

ko etena. Gernikan izana naiz, euskal idazleei eskainirik den erakusketan: han ez zen ez Barojarik, ez Unamunorik. Aberastasun bat, zeuena, alferrik galtzen uztea iruditzen zait. Sinestezina. Beharbada, gaelikoaren ahulda-dearen seinale da, baina guk ez daukagu ingelesez idatzi duten gure idazleak lehen mailan jartzeko eragozpenik, dela W.B. Yates, dela Seamus Heaney... Nigerian, Indian, koloniarren errebantxa aipatzen dute, alegia, hobeto hitz egiten dutela ingelesek beraiek baino! Kar, kar, kar. Gurean hitz egiten dugun ingelesak, berriz, gaelikoaren sintaxiaren eragina du, hein batean, bederen. Baina Baroja euskal idazleen erakusketan ez agertzea... Barrua behar du! Euskara ez da Euskal Herriko hizkuntza bakarra, badituzue frantsesa eta gaztelania, eta rock-and-rollarekin eta filmekin, baita ingelese ere. Kultur aberastasuna, zinez! Nazionalismo guztien arriskurik handiena da, nire iritziz, eskusiora jotzen dutela. Tira, zeinahi komunitateren sorreran izpiritu horixe dago oinarrian: gu, eta besteak. Esklusioa, betiere. Izan liteke kaltegabea, edo, alderantziz, erasokorra...

Kultur aberastasuna aipatu duzu. Beste inor baino aberatsago ote gara, bada, euskaldunok? Ez ote dugu parerik?

Ez dakit munduan besterik ez ote dagoen,

Traidorea

“Estreinako urtean, Gasteizko kalean, neska batekin topo egin nuen, ezagutzen nuena. Gabonak ziren, eta afaltzera eraman ninduen beraierera. ETA politiko-militarrekoen inguruan zebilela uste dut. Ni Sinn Fein ofizialeko burkidea nintzen, ETA-pm bat, esaterako, baina hemengo ‘mili’-ekin harremanetan zegoena. Bitxia da orduko harreman gurutzaketa: ETA-pm-koak IRA probisionalarekin zeuden harremanetan, hango ‘miliak’ nolabait. Gu, Sinn Fein ofizialekoak –hango pm-ak, ‘nolabait’, berriz ere–, hemengo ‘mili’-ekin... Aurrerago, neska hark esan zidan, pm-ek esan ziotela ni neure herriaren traidorea nintzela”.

baina uste dut euskaldunok duzuen tradizio eta modernitate konbinazio hori guztiz berezia dela. Irlandarrok, esaterako, dantza tradizionalak egiten ditugunean, gauza bat guztiz folklorikoa egiten ari gara, ez du beste dimentsiorik, lan bat zinez artifizia, turistentzat ez beste inorentzat egina. Hemen, Lesakara joan, Lekeitiora, Guardiara... beren buruarentzat egiten dute festa! Festa astegun gorrian baldin badator, askoz hobeto niretzat, herrian herrikoek beste inor ez dute jai egiten. Halaber, ikaragarria zait jendea alardearen inguruan eztabaidan ikustea. Sartu elkarte batera afaltzera eta eztabaida sutsu eta beroa. Aitzitik, ez duzu jakingo,

haren arrazoiak arabera, nor den zein alderdi politikotakoa! Eta jendeak hemen festa nola bizi duen froga, emakume batek esan zidana: “Paddy, kantinera irten nintzen eguna, ezkondu nintzen eguna baino handiagoa izan zen!”. Alardea dela-eta, mingarria zait gertatzen ari dena, nik inon aterpetxerik izatekotan Hondarribian izan dudalako, han bizi bainintzen urtebetez 70eko hamarkada hartan... Baina grina hori, alegia, inbidia ematen dit. Edo meza kontu hori! Lesakan, familia batean, semea ateo omen. Egun batean, ni bertan, etxekoekin hizketan eta, seme hori bazihoala, joan beharra zuela, koruan kantatzera! “Korura, elizara? Ez haiz, bada, ateo?”.”Bai, baina herriko jaia duk, eta hori sineste guztien gaitetik zagok!”.

Zenbateko eragina dute zure iritzietan Euskal Herrian dituzun lagunek?

Galdera interesgarria... Nire liburua, *The Basque Country*, eta aurkezpenean garbi adierazten saiatu nintzen, ez da Euskal Herriaren historia bat. Horixe ez zitzaidan gustatu, niri batere eta ezertan galdetu gabe, argitaletxeak delako azpiztitulua jartzea: *A Cultural History*. Idazten hasi orduko garbi esan zidaten: “Hik segi heure obsesioei!”.

EGIZU HARPIDETZA EGIOZU HARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 138 € / Iparraldean 168 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefona

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 • harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

TOLESTU

ZELO-PAPERA
HEMEN IRIN

Liburua, finean, Paddy Woodworthen Euskal Herri bat da, balio lezake asko, gutxi, edo ezer ez, baina ikuspegi pertsonala da, neure-neurea. Esaterako, niri asko gustatzen zait Donostia, baina liburuan ez du hiru paragrafo besterik. Aldiz, kapitulu oso bat du Asteasuk! Kar, kar, kar.

Kar, kar, kar.

Liburu idiosinkrasikoa da, neurea, pertsonala, partziala, Paddy Woodworthen Euskal Herria duzu. Eta orain berriz egin beharko banu, bestela egingo nuke. Ingeleseko irakurleari zenbait abiapuntu eman nahi nizkion Euskal Herriari buruz, batzuetan sakonago, besteetan axalago. Abiapuntuok hartu eta beste leku batzuetara abia dadin nahiko nuke. Ni, izan ere, Franco hil zen urtean etorri nintzen lehenbizikoz hona, hemen gorik batere ez nekiela, herrialde ezberdina zela besterik. Tira, txapela bazela, ETA ere bai... baina ganorazkorik ez. Dena dela, jakin-mina nekarren, paralelismorik ba ote zen orduan hemen ziren bi ETA haien eta Irlandako bi IRA haien artean. Ingeles irakasle abiatu nintzen lan bila, jakina. Ez nuen inor ezagutzen, baina laster egin

Artola, Zulaika, Atxaga

“Txomin Artolarekin aspaldikoa dut harremana. Berriagoa, Joseba Zulaikarekin eta Bernardo Atxagarekin, adibidez. Hauekin, egia esan, bigarren liburu hau idazten hasi nintzen arte ez nuen batere ezaupiderik. Zulaikaren *Identidad Vasca*, *Metáfora y Sacramentok* eragin handia izan zuen nigan. Gatazkari buruz, eta euskal kulturaz, inork idatzi dituen pertzepzio zorrotz, sotil, aberatsenak ageri dira liburu horretan. Atxagaren *Obabakoak* irakurri nuen, eta liburu zoragarria iruditu zitzaidan, izan Euskal Herriko liburua edo nonahikoa. Nire lana idazten ari zela publikatu zuen *Soinujolearen semea*, Euskal Herria entenditzeko liburu funtsezkoa, nire ustez”.

nituen lagunak, irlandarrok ohi dugunez, beharbada, eta joera politiko guztietako jendea ezagutu nuen.

Dirty War... liburuaren hazia erein zenuen.

Ez da gaizki esana. Gerra zikinari buruzko liburua egin ahal izateko, nahitaezko nuen hangoak eta hemengoak ezagutzea. CESI-Dekoei ere esan nien, ETako jendearekin hitz egin behar nuela. ETakoei, berdin, CESIDekoekin hitz egingo nuela. Kazetari nintzen, eta elkarrizketa, nortara edo hartara, seduzitzeko modu bat da. Harreman pertsonala da. Ez zara mahaira jartzen —ez Jose Amedorekin, ez Josu Urrutikoetxearekin— bera kondenatzeko, hari entzuteko baizik. Heldu nintzenean, ezkerrekoa nintzen, ezkerreko alderdi bateko militantea nintzen Irlandan, eta hemen ere errazago gertatu zitzaidan ezker “sukurtsalista”-rekin harremanetan sartzeari, orduko sigla saltsa hartakoekin, dela PSOE, PC, PT edo ORT-koekin... Deustuko apartamendu batean egon nintzen lehenengo, Irlandako lagun batena izana zelako ordu arte.

Uste nuen bakarrik heldu zinela.

Hiru lagun heldu ginen, neu lehena, beste bi lagun min, ondoren. Hala ere, erabakia harturik etorri ginen: ez ginen hemen elkarren ondoan biziko, ezta atzeritarren artean ere. Hemen bertako jendearen artean biziko ginen. Hiru apartamentutan bizi izan ginen. Lagun hura, hasteko, Irlandara itzuli zen apirilean. Bi PT, bi PC, bat anarkista, beste bat hippya, bi PSOEkoak. PSOEko haietako bat, Julian Sancristobal zen. Harreman estua izan genuen sasoi hartan, baina gora igo ahala, kito gure harremana. Ez zitzaion interesatzen nire modukoekin harremanik izatea. Azkena ikusi nuenean, hileta baten karietara izan zen, Komando Autonomoek Zumaian edo Zumarragan hil zuten German baten meztan [German Gonzalez Lopez, 1979an Urre-





Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.







BIZKAIA
BIZIA

AZKEN HITZA

Herriaz maitemindu

“Niri zeharo ezinbesteko zait giza harremana, dela elkarrizketa bat Mayor Orejarekin, edo Rufi Etxeberriarekin. Herri bat entenditu nahi bada, maitemindu beharra dago, baina honetaz eta hartaz maitemindu, guztiaz, hein batean, bederen!”.



txun hila]. Orduantxe kantatu zuten PSOE-koek Eusko Gudariak kalean, ukabila jasorik. Omen.

ETArak izan ez balitz, kanpoko jendeak hona begiratu zuen, herri honetara?

Ona galdera. Baietz uste dut. Zoaz XIX. mendera, hona etorri ziren antropologoak, hizkuntzalariak... Rodney Gallop, *A Book of the Basques* idatzi zuena, liburu zoragarria... Bai, ETA gabe ere izango zen jakin-min hori. Nire ustez, euskara da euskalduna berezi egiten duena. Euskararekin batera, dantza, kantua eta gainerakoak datoz. Baina euskara da lehenengo. Jakina, hor dago industria ere. Ingelesak, esaterako, XVI. mendean bertan konturatu ziren hemengo burdinaz, Shakespeareren *bilboak* eta. Berdin, industria postmoderno... Badut lagun bat, nazionalista... euskal nazionalista –nazionalista era asko baitago, Jaime Mayor Oreja ere nazionalista baita, euskalduna, baina nazionalista espainola eta kito!–, bada, lagun horrek –eta ez dut uste kalterik egingo dionik haren izena esanik, hau da, Txema Montero da nire lagun hori–, esan zidan

liburua egiten ari nintzela: “Paddy, badakit aski eszeptiko zarela euskal nazionalismoarekiko, eta, aldi berean, aski modu erromantikoan begiratzen diozula Euskal Herriari, baina, gogoan har, Bilbo ez dela, bakarrik eta besterik gabe, Sabino Aranaren sehaska. Bilbo, PSOEren eta PCEn sehaska ere badela. Gure aita oso zen langilea, guztiz on eta zintzoa, naif xamarra politikari dagokionean, oso kristau ona –hitzak duen esanahirik zuzenean–, eta gogoan dut goiz hura, Carrero Blanco hil zutelako berria zabaldu zenean. Gure aitak hirira eraman behar ninduen egun hartan. “Heriotza bat ospatzen ari haiz, Paddy!”. “Bai, putaseme galanta zen!”. Berak, berri: “Sekula ez huke poztu behar inor hil delako”. Beharbada aita bakezalea nuen, oso jarrera ausarta. Nik ez daukat jarrera hori partekatzeko ausardiarik. Ez naiz horren balientea. Nik uste, hala kanpo-koentzat nola bertakoentzat, oso zaila izan dela ETArekin bidea ulertzea demokrazia –demokrazia inperfektua izan bada ere– ezarri zutenetik. Nola justifikatu atentatuak? Nola justifikatu ekintza armatuak areago-tzea? Ez da erraza... ■



laia
sagardotegia

arkolla auzoa 33 • Hondarribia
Tel.: 943 646 309
info@laiaerretegia.com

www.laiaerretegia.com

TTAKUN (H)ERRENKA

Eta zuk galdetzen didazu?

Enel, zelako itxura ona hartzen ari den nobela. Eta zer, eta nobelako pertsonaia bati esker, Ander Blackberry-ri esker, –nobela molde berri bat asmatu ote dugu?–. Berak eman dizkigu-eta hainbat gako ezinbesteko. Batez ere, ezein nobelatan hain garrantzitsua den narratzailearenak.

MARC CAMPÀ



Beñat Sarasola



Apalolaza



Padroin

senar horietako bat. Liburu bat jaso berri du opari, Beñat Sarasolak eskainia, Roberto Bolañorena, azkenekoa, hil ostean argitaratu ziotena: *Los sinsabores del verdadero policía*.

Eta azkenik, Beñat Sarasola egile-narratzailea, autofikzionala, egungo eleberrigintzako *avant-gardeak*

exijitzen duen moduan. Nobela bikainenetan bezala (Céline, Genet...), tipo gorrotagarri bat, putaseme bat. Hurkoa zanpatzeko aukerarik galtzen ez duena, laineza, antipatikoa, hotza, tontolapikoa, idiota, Real Madrilen jarraitzailea eta azken hauteskundeetan Hamaikabat-i bozka eman diona. Hura izango da, halaber, guztion zorionerako, hildakoa (tira, ulertu egidazue ondo, ez da inoiz poztu behar inoren heriotzarengatik, giza eskubideak dira lehenengo... eta gauza horiek). Ez du lan oso konplikatu Blackberry jaunak, hasi baino lehen baitakizki zein den hildakoa zein hiltzailea, baina badakizue, nobela onenetan hori gutxienezkoa da, bidean gertatzen dena baita funtsezkoena. Esaterako, *Bihotz Bin* lehenengo esaldian ematen zaigu aditzera zein izango den amaiera, haatik, aurrera ekiten dugu atseginez. Bada, hemen ere berdin. Nobelaren izenburua jakin beharko zenukete honezkero, ez da Blackberry izan behar asmatzeko.

Nobelaren oinarritutako telesailean detektibeak Kandido Urangaren ahotso edukiko du. Uxueri Kontxu Odriozolarena ipiniko diogu eta Sarasola baboari, Marino Lejarretarena. Hala, ia osatua dugu nobelaren bizkarrezurra. Kontua borobiltzeko zer edo zer falta zaigu oraindik, beste pertsonaia gatz eta piperdunen bat-edo. Kontakizunari bizitasun eta morbo apur bat gehituko diona. Gay edo beltz bat ondo etorriko litzaiguke. Uxue, Madril eta halako lekuetan ibilita, ezagutuko duzu halakorik ezta? ■

Bagenituen bi pertsonaia nagusiak, Uxue hiltzailea eta Ander detektibea. Lehenengoa, honezkero ez badakizue, Madrilen bizi da. Jon Sarasuaren argazkiez forratzen zituen ikastolako koadernoak eta nahiago luke, norbait hiltzekotan, motiborik gabe erahil (ulertu egidazue ondo, inoiz ez dago motiborik inor hiltzeko, giza eskubideak dira lehenengo... eta gauza horiek). Etorriko dira gero psikoa-nalistak esatera *Ttakun* batean tratamenduan egon izana aitortzen zuela, baina benetan, ezereza da bere joera hiltzaileen iturri. Asasino nihilista moderno bat beraz, Albert Camusen ildokoa. Amy Winehouse zenaren orrazkera eramaten du eta baita kamiseta beltz bat, “I ♥ Madrid” jartzen duena zuri eta gorritz.

Detektibea, Ander Blackberry, polizia da, bai, baina ezagun du bizitzaren alde humanoa ere. Dotorea da janzkeraz, antigoaleko bizikleta beltzaz da higitzen alde batetik bestera, tarte txikiena duenean poema-liburuak irakurtzen ditu. Egiatzki, Mallarmé eta Valéry-ren hermetismoa deszifratzen zailduta lortu du kasu korapilatsuak ere ebazteko abilezia berezia. Juan Ramón Jiménez, Pablo Neruda eta Gustavo Adolfo Bécquer aldean eramane ohi ditu halaber. “¿Y tú me lo preguntas? Asesino eres tú” gustatzen zaio esatea susmagarria atzematen duenean. Ez du Jimmy McNulty-ren arrakasta emakumeekin, baina McNulty ez bezala, kaballero bat da, edonork bere alabarentzat (edo semearentzat) nahiko lukeen

«
Bihotz Bin lehenengo esaldian ematen zaigu
aditzera zein izango den amaiera, haatik,
aurrera ekiten dugu atseginez. Bada,
hemen ere berdin. Nobelaren izenburua
jakin beharko zenukete honezkero,
ez da Blackberry izan behar
asmatzeko
»

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta

2005 :

FRANTZIAKO POPULAZIOAK ERREFERENDUMEAN
EZA EMAN DIO EUROPAKO KONSTITUZIOARI.
EZ DU INPORTA BAINA! ASKI IZAN DA
GALDEKETA BERA PASATzea GERO 557
HERRITARREN ORDEZKARI (?!?!?!?)
BAI BILAKA DADIN...

2011:

33 URTEZ ESPAINIAKO KONSTITUZIOAREN UZTAR
PEAN, BAIZIK UKIEZINA dela -espainiarren-
SOBERANIA POPULARRA ETA BLA, ETA ORAIN
ALDATUKO dute 350 herritarren ordezkar
(?!?!?!?)REN artean...

MOVIMIENTO

20. N



AUPA
DEMOKRAZIA
ORGANIKO
KONPOSTAGARRIA
!!!

Jakes Bortairu

BATERA PLATAFORMAKO KIDEA

Lurralde antolaketa



errien arteko kooperazioari buruzko eztabaida pil-pilean dugu Iparraldean. Frantziako Legebiltzarra iaz bozkatu zuen lurralde elkargoen erreformaren atalean,

herrien arteko egiturak ditugu mahai gainean. Urtea bukatu gabe, tokiko hautetsiak kontsultatu ondoren, Estatuko ordezkaria den prefetak herrien arteko kooperazio eskema berria finkatu beharko du, gobernuak argi utzi duen bide orria segituz: egituren kopurua azkarki murriztu eta, kosta ahala kosta, azken 30 urteetan osatu diren mankomunitateak berrantolatu eta batu. Frantziako Estatuan tarrapataka egiten ari den prozesu honek eztabaida eta kexak piztu ditu. Egia erran, tokiko hautsi-mautsi politiko franko hankaz gora ezarri ditu, nahiz eta bestalde funtsezko arazoak pausatzen dituen, hala nola, non eta nork hartzen dituen erabaki politikoak.

Kontzertazioaren lehen txanda amaiturik, zera aurreikusten du eskema berriak: Zuberoa den bezala geldituko litzateke (Biarnoko herri bat barne eta Eskiula kanpo geldituz). Nafarroa Beherea elkargo bakar batean edo bitan antolatu litzateke. Aldiz Lapurdin gertatuko litzateke aldaketa handiena, BABko hiriguneak (Baiona, Angelu, Biarritz) inguruko herri asko bereganatuz, Landes-etako batzuk barne. Azpimarratzeko



DANI BLANCO

da irentsiak liratekeen herri horiek ezetz borobila erran berri diotela proiektuari. Kezka nagusia hauxe dute: elkargo berriak lurralde osoko ikuspegitik ariko ote dira, ala herri nagusiek inguruko herri tipiak beren menpe ezarriko ote dituzte? Kezkatzeko bada dudarik gabe, Ipar Euskal Herriko ezagupen instituzionalaren etsai amorratuenak BABko elkargoan baitira hain zuzen.

Izan ere, eztabaida Ipar Euskal Herriko testuinguru berezian pausatzen da. Iparralde mailako egitura juridiko-politiko ezean, herri elkargoen batzeko irizpideak, bakoitzaren hedadura eta esku-menei buruzko eztabaidak makurtuak dira. Hots, nola burutu lurralde barneko antolaketa txukuna, lurralde osoa ezagutu eta antolatu gabe? Azken hamabost urte hauetan Garapen Kontseiluko lanek behin eta berriz argi utzi dute herritarren eguneroko bizitzan inportanteak diren hainbat arazo kudeatzeko maila egokia lurralde osoa dela. Herri elkargoak gauza askotarako txiki edo sakabana-tuegiak gelditzen dira. Bestalde, proposatuak diren elkargo berriak gehienetan ikuspegi teknokrata batetik eginak dira, estatistikak kontuan hartuz eta inondik ere ez herritarren bizipen eta borondatea. Panorama ikusirik, argi da Iparraldeko berezko instituzio baten aldeko borroka azkartu beharra dela. ■

«
Panorama ikusirik, argi da
Iparraldeko berezko instituzio
baten aldeko borroka
azkartu beharra dela
»

TXANDAN

Edu Zelaieta



Sofoklesen *Antigona* ikusi genuen atzo,

Meridako teatro erromatarrean: Ediporen eta Jokastaren arteko intzestuak emandako Antigona gazteak patu ezin lazgarriagori aurre egin beharko dio. Emaizta, ondorioa, greziar tragedietan ohi bezala, eszenatokia zerraldoz betetzea, ordu eta erdiren buruan.

Fribolitatea izango da edo neure xelebrekeria –zuek lasai juzka– hainbeste ezbehar ikusita norberaren arazoak nimitxoak direla pentsatzea, sentitzea. Enpatia-ariketa bat eginez, horrelaxe irudika-

Tragediaren baltsamoa

tu ditut aspaldiko greziarrak: euren eguneroko bizimoduari aise eramangarriagoa iritziko

zioten hainbatek, teatroan ikusitakoaren aldean. Ergelen kontsolamendua, nahi baduzue, baina kontsolamendua, finean.

Analogia eginez, auzo-tragedia jorratzen duten telebistako irudiak batzuetan modu berean geureganatzen ditugula iruditzen zaiz, albistegiak barne. Agian, diferentzia nagusi bat nabarmenduko nuke: guk, egungo kontsumismo azkarraren antzera, etengabe betetzen ditugu pantailak zerraldo berri-zaharrez, teatroaren alferreko trama aurreztuz. ■

Xipri Arbellalde

APAIZA ETA KAZETARIA

Requiem II

B

erri txarrak! Berri txarrak! Alde guztietatik! Aro aldaketaz zenbaitek ziotena gero eta seguragoa da. Bi edo hiru graduz goitituko da berotasuna mende hondarrerako. Omen!

Somalia, Kenia eta Etiopian egundainokotan idortea. Eta idorteari dagokiola, gosetean. Hemen berean jadanik horrenbeste mila milioi euro emanak, eta beste andana bat eman beharko Greziari: 19.000 milioi Frantziari doakionaz. Orain arte dirua xuhur eta hori, zauriaren gaineko piko! Espainia eta Italian ere zerbait beharko ote den... Frantziak berak espantu guti. *Requiem* libururen edizio berri bat, emendatua, osatua, agertu beharko du Xiprik.

Horiek denak ez ote dira beti zinkurinka ari direnen negarrak? Nahi duzuna, nahi bezain ongi eginik ere, beti zerbait makur. Zer munta zaigu mende hondarra? Hilak izanen gara!

Itsasoa goratuko? Baionan, Aturri bazterreko etxeak urpean litezkeela marea handi egunetan? Eta gero? Gaurko zientzia modernoarenekin hori ez da arazorik: uraren bi bazterretan metro bat gorako hormak eraiki eta ura ez da hedatuko. Gauza bera Urumea, Orio, Deba, Ibaizabal eta bestetan. Konturatzen zara zenbat mila lan ordu sortuko duen horrek? Zer garapena ekonomiarentzat!



DANI BLANCO



Egon lasai eta joan larruaren
belztera, zabal-zabala emanik
hondartzan. Larrua erretzearen
bortxaz, minbizia biltzen baduzu,
lana emanen diezu medikuei.
Garatuko den ekonomia
sail bat gehiago!



Airea berotuko? Ez ote dituzu ezagutzen aire-egokizaleak? Salduko dira orain arte berogailuak bezala, eta horra beste punpa bat goiti gure ekonomiarentzat.

Afrikako idortea? Hilak milaka? Eta zer? Beltzak gehiegi dira. Honara etorri behar bizitzeko, ez baitira gai hango jendetzearen garapena mugatzeko. Ez daukate ez begiragailurik, ez pilularik gaixoei. Ez eta dirurik horien erosteko. Guk beharko genizkieke pagatu? Badugu premiagorik. Idorte eta goseteari esker, naturalki mugatuko da haien hazkundera eta ez dute emigratzerik izanen, itsasoa itotzeko arriskuarekin.

Gure diru arazoak? Beti izan dira. Beti izanen. Eta beti atera gara. Zergatik ez oraingoan? Ahantzi zaizu ala? Duela hiru urte ekonomia mundializatua kili-kolo egon zen eta zulotik atera gara. Zalukara! Zuloan sartu eta atera gaituzten haiek berek dauzkate eskuetan munduko giderrak. Zinez bihurria izan behar da ez sinesteko oraingoan ez dutela orduan bezain ongi egingen.

Egon lasai eta joan larruaren belztera, zabal-zabala emanik hondartzan. Tahitira joateko doa ez baduzu, Andaluziara bederen. Larrua erretzearen bortxaz, minbizia biltzen baduzu, lana emanen diezu medikuei. Garatuko den ekonomia sail bat gehiago! ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



maite dudala uste dut, bere presentziak ez nau inkomodatzen, bere jardunak ez nau deserosotzen, eta aldian behin nire arreta irabazten du. Kotxea dut entzun leku ohikoena, eta, ingurutik urruntzen naizelarik, automatikoki aldatzen dira sintoniak aldiro azkarrena erakarriz. Ahotsek desberdintzen dituzte beren artekoa, formatu berdintsuetan esatariak kantariak bailiran. Ez dituzte garunak nekatzen gai eta mezu bila, klonikoak dira gehienak. Espainolez ari direnak dira nabarmenenak klonifikazio horretan, eta politika eta futbola, ez kirola, dituzte oinarri. Aspaldion, tertulia oihularietan dute elkargune, nor

Irratia

baino nor zabarrago. Bi izar dituzte argi: Bildu eta Barcelona. Biak nahi lituzkete desagerrarazi. Lehenarekin dute errazago ikusten helburua gauzatzea, eta orenak eta orenak ematen dituzte giro soziala prestatzen hala izan dadin. Gipuzkoan dute kokatu xedea, eta probintzia bera nahi lukete ilegalizatu eurentzat aski espainola ez delako. Zailagoa zaie bigarrera alboratzea. Beren gusturako katalan jokalariai nahikoa patriota espainolak ez badira ere, haiei zor dizkiete doan hartutako autoestima tonak mundu zabalera. Hala ere, kasu, beren Real Madrilek ez badu irabazten, kapaz dira Barça ligatik kanporatzeko eta. Ez dute gogorik falta, eta lotsarik ere ez. ■

BERTSO BERRIAK

Xabier Paga

Ligatzeko jarriak



INIGO AZKONA

I

Uda giroko festa garaian
izaten den oztopo bat
izan daiteke ez jakitea
lore bat, berba-joko bat.
Txosnako barran ikusiz gero
nonbait zure gogoko bat,
hurbildu eta kanta e(g)iozu
segidako piropo bat.

II

Hau dunk gauaren zoragarria!
Zerua izarren almazen!
Gainerakoak hor goian zeudenk,
hi baino ez haiz faltatzen!
Ez badunk lehen ikustaldiko
amodiorik onartzen,
esan noiz arte segi behar dudan
hire aurretik pasatzen.

III

“Zertara dator orain beste hau”
nahiz pentsatuko duzun zuk
—nire aurretik ziur etorri
zaizkizula beste batzuk—,
nik ez dizut nahi latarik eman,
lasai, ez nator “musu-truk”,
mesedetxo bat baino ez dut nahi:
zurekin gosaldut nahi dut.

IV

Epa, barkatu, zer moduz zaude?
Lasai, ez nator eskean,
zu ikusita bukaera hau
oroitu dut tupustean:
“Tori hamaika larrosa gorri
zuretzako ezustean,
dozenarako falta den hori
zerorri zaren ustean”.

V

Iep, polit hori, zer moduz gaua?
Orain arte beste bat zen,
baina agertu zaren unetik
dena hasi da aldatzen.
Pentsa ikusi zaitudanetik
zer hasi naizen sentitzen:
duela hogeita hamar segundo
“beste espaloikoa” nintzen!

VI

Belarri txarrez jaio nintzen ni,
hobe duzu azkar jakin,
Jaunak hornitu ninduelako
beste dohain batzuekin.
Bertsotan segi nezakeen arren
txosnak itxi arte fin-fin,
isilduko naiz trago bat hartzen
baldin baduzu nirekin.

DOINUA: Andre txarren bentajak.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko kaira

Musika

Txinako aukerak baliatu dituen mungiarra

Beñat Fuentes mungiarra eta Xujun txinatarra jende askoren arreta berenganatu dute Txinan, pop-rock dantzagarria oinarri hartuta hainbat estilotara zabalduz. The Tree du izena taldeak eta ekainean argitaratu dute lehen diskoa. Irailean ekialderako bidea berriz hartu aurretik gitarra jotzaile gaztea Euskal Herrian dela probestuz, harengana hurbildu gara.

GORKA BEREZIARTUA

Argazkiak: Dani Blanco



HISTORIA ENTZUN eta ezin saihestu Hertzainak esaldi jada topiko samar hartaz akordatzear: “Euskadin rock and rollak ez du inoiz dirurik emanen”. Gehienei ez baitie sos handirik ematen; ez gutxienez musikari esker bizitzeko. Beñat Fuentesek hainbat taldetan jo du azken urteotan, Póg Mo Thón-en rock metalerotik Akustika-ren ildo esperimentale-
ra; eta musika egin bitartean, Fisika ikasitakoa eta hiztegi gintzan lan egindakoa da. Horraino, dena normal. Kontua da, momentu batean *orientazio* berri baten premia sentitzen duela, kanpora joateko beharra, apustu berriak egiteko grina. Eta Txinara abiatzen da, hizkuntza ikasteko asmoarekin, baina gitarra, badaezpada, beti aldean. Sos batzuk ateratzeko ezkontzetan-eta musika jotzen hasiko da; gero artista txinatar batekin kolaboratzeko eskatuko dio eta –gauzak horrela pasatzen dira, ustekabea– jaialdi unibertsitario batean aritu ondoren Xujun hurbilduko zaio, zerbait elkarrekin egiteko proposamenarekin.

“Ez genuen talde moduan ikusi, hasieran proiektu bat zen. Soinu-bandak egiten genituen, kolaborazioak artista pila batez, galeria bateko musika... kontzertu budista bat ere idatzi genuen”. Sustrai horietatik joango da arbola garaiera hartzen: The Tree sortuko da, bi kideko talde euskal-txinatarra, aurtengo ekainean izen bereko CDa kaleratu duena. Disko eklektiko samarra da, lehenengo abes-
titik (*Bye, bye, bye*) iragartzen du etorriko dena: erritmo errepikakorrak pop-rock dan-

tzagarriaren norabidean jartzten du entzulea, baina erdira iritsita, atmosfera dentso-agoetan sartzen da, mantsotu egiten da, erreflexiboago bihurtzen, amaieran osteraz eztanda egiteko. Koktel osoa dago antzeko osagaiekin egina: gorputza mugitzera gonbidatzen duten abestiak, AEBetako folkaren eta post-rockaren aztarnekin, konbinazioa larregi behartu gabe. Ahots-melodia malenkoniatsuak kontrastea egiten du moldaketa argiagoei eta horrek badu zerikusia taldekideen izaerarekin. “Han egin diziguten elkarrizketa guztietan Xujunek esan du bera dela baikorra eta neu ezkorra; eta kanta askotan igartzten dela hori”. Baina Fuentes ez dago erabat ados lagunaren definizioarekin: “Berak ‘ezkorra’ esaten du, beti nagoelako... zelan esan...” –segundo batzuk behar ditu hitz zehatzarekin jotzeko– “existentzialista, uste dut hori dela berba. Eta berak hori ezkortasunarekin lotzen du. Interpretatzeko era bat da”.

Halakoak gehiagotan ere pasako zaizkielakoan dator galdera: ea nola gobernatzen dituzten txinatarrak eta euskaldunak diferentzia kultural horiek. Erantzuna: ez dutela hainbesteko garrantzirik, batzen dituen handiagoa denean. Fuentesek azaldu duenez, taldea sortu baino lehen, aurretik bakoitzak egindako musika pasa zioten elkarri. Xujun muturreko metala jotakoa zen, baina azkenaldian Sigur Ros-en tankerako musikarekin ari zen. “Ikusi nuen hain gauza diferenteak egin zituela eta pentsatu nuen: ‘Neuk be berdin egin dut, gauza berri bat egin behar badut, aurrekoarekin zerikusirik ez edukitzen saiatzen naiz’. Eta akaso horrek eroan gaitu proiektu honetara, nahiz eta gure arteko ezberdintasunak handiak izan, bai kulturalak, bai bestelakoak”.

Kantetako hitz gehienak ingelesez dira, baina bada euskarazko bat ere (*Venus dago ederren*), eta txinerazko esaldiak zenbait kantatan. Taldea osatu aurretik elkarrekin egin zituzten proiektuetan hasi ziren ingelesez, enkarguz egindako musiketan horrela eskatu zirelako. Ildo horri eutsi diote diskoa presta-



Momentu ona da Txinan musikari izateko: biztanleriarekin proportzioan, ez daude talde gehiegi Beñat Fuentesek azaldu duenez

tzen hastean, asko eztabai-datu ondoren. Xujunentzat, ez baitu hizkuntza ezagutzen, konplikatu da. Orduak entseatzten. Eta euskarazko kanta egiteko, beste hainbeste. Gainera –hau kontatzeko modukoa da– berak eskatu zion Fuentesi *Venus dago ederren*eko hitzak bizkaieraz idazteko.

Bi laguneko orkestra

Ohitzen ari gara partaide gutxi dituzten taldeetara; are, kide bakarrekotara. Mursego edo Argazki Bat Behelainoan bezalakoen emaitzek erakusten dute, *loop*-ak egoki erabilia, irudimenarekin eta teknologia lagun, asko egin daitekeela –eta ondo– jende gutxi izan arren. Berdin The Treerekin: bi kide eta instrumentu asko jotzeko. “Apustua izan da, ea bi lagunek nola egin genezakeen talde itxura edukitzeko. Pedal asko erabiltzen ditugu, Xujunek kanta askotan jotzen du bateria eta neuk be erabiltzen dut bonboak dispartzeko pedala”.

Zortzi pistako grabagailu batekin erregistratu dute disko osoa. Txinarako hegazkina hartzean maletan sartu zuen Fuentesek; beti eraman izan du gainean, doinuren bat buruan edukiz gero, berehala gorde ahal izateko. Azkenean hori baino zuku gehiago atera dio ordea. Taldean hasi, kantak egin eta diskoa grabatzea buruan harturik, estudio batera joatea izango zen hurrengo urratsa. Managerrak erakutsi ere egin zien, non grabatuko zuten. “Estudio ona zen” aitortu du; “baina esan genion: ‘Bale, erabiliko dugu zure estudioa, baina grabatu beharrean gaur egungo teknologiagaz, zortzi pistako honegaz egingo dugu’. Eta ez zen arazorik egon”. Musikan erromantizismoa galdu dela uste du Fuentesek, ordenagailuek “artifiziala” bihurtu dutela nola grabazioa, hala entzuteko modua. “Eta gainera, askotan entzuten duzuna ez da benetako taldea. Ordenagailuak %70eko pisua dauka. Lehen ere teknikaria oso inportantea zen, baina taldeak berak nortasuna zeukan. Gaur egun ordenagailuagaz dena egin duzu”.

Aukeratu zuten ba, eta ez dira damutu, baina prozesua zaildu egin du tresneriaren



Ezkerrean Fuentes eta Xujun, diskorako erabili duten tresneriarekin. Eskuinean berriz, Txina osoa zeharkatu duen bira iragartzen duen afixa.

bereziak. Sei edo zazpi minutuko kanta egi-ten dituen talde batentzat, pieza bakoitza akatsik gabe jo beharra neketsua baita; zerbait oker grabatzen den bakoitzean, kanta osoa hasieratik jo behar berriz ere; eta batzuetan “copy -paste” miragarria faltan botatzen da. Baina ideia bat jarri zuten horren guztia- ren gainetik: “Onak edo txarrak, baina guk bene- tan zer jotzen dugun erakutsi gura genuen”.

Txina osoa zeharkatu duen bira

Eta atera bezain pronto, sekula eztako oihar- tzuna: Xiami.com atarian –Txinako musika webgunerik handienean– zeresan franko emango du The Tree; beraien kante- egune- ro milaka entzunaldi izango dituzte; eta herrialde osoa zeharkatuko duen bira abiatu- ko dute. Garrantzia kendu nahi dio Fuente- sek, dena den. Ez direla famatuak han, ezta hurrik eman ere. Momentu onean harrapatu dituela, ez besterik; Txinan ez daudela talde gehiegi biztanleriaren proportzioak kontuan hartuz gero; eta entzuleak aldez, badaudela. “Hangzhou-n adibidez, talde pila bat daude, baina hasten zara konparatzen eta... Bilbon baino gehiago ez”. Eta hori, kontuan izanda hiriak sei milioi biztanle dauzkala, bada datu interesgarria.

Zenbaki gehiago: “Hasten zara konpara- tzen eta, hemen noren kanta entzuten da egu- nean 55.000 aldiz? Inorena be ez. Inposiblea da, ez dagoelako jenderik. Baina Txinako

internautak, AEBetako biztanleak baino gehiago dira”. Zehazki, 145 milioi lagun gehiago, 2011n 457 milioi lagunek erabiltzen baitute Internet herrialdean. AEBek 312 milioi biztanle dituzte, Wikipediak diosku- nez. Handia dela Txina gero. “Neuri be kosta egiten zait jabetzea oraindik. Ezin da”.

Urrun daude horiek denak Mungiatik. Hizketan ari garen bitartean lagunak eta eza- gunak hurbiltzen zaizkio Beñati, zer moduz, noiz zoaz hara berriz, a, elkarrizketa bat, bar- katu, gero hitz egingo dugu. Irail hasieran itzuliko da Txinara, han ereindako arbola musikari kimu berriak nola jaiotzen zaiz- kion ikustera. Hona ere fruituek iristen segi- tzen badute, ez da albiste txarra izango. ■

CuadraBus

www.cuadrabus.com

☎ 945 890 804 / 670 477 727 · Faxes: 945 892 215
info@cuadrabus.com

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak

MAHATSON- DOAREN ADARRA HILDA	ADAR- JOTZEA ZEREGIN	Kojo, HERREN			LEPOA, IDUNA AHOKADA	JANARIRIK EZ HARTZEA SUSTRAITU, OINARRITU	TANINOAK ESKAINI
ISKANBILA JAINKO GREKOA					PERTSONAIA -REN IZENA JATEKO BEHARRA		
			NEUK MADARI- KAZIO	AZIENDA EMAKUMEZ- KO BARNE- JANTZI			
NITRO- GENOA ZELAIA, TOKI LAUA	KUBO FORMAKOA BAKUKO HERRITAR				KALABAZA DOILOR		
		INFIN., IKUSKATU DIGESTIO ORGANO				GOROTZA ZIHOA BEZALA GOGORTU	
PERTSO- NAIAREN ABIZENA	LERDE ZUR-ZATI		NAFARROAK O HERRIA NAFARROAK O HERRIA				ESAN
					LOGELA BEREZI HELBURUA, XEDEA		
AZKEN BOKALA ERREPIKATUA BITARTEA	DOAN XAKE JOKOAREN PUNTUAK					HURBIL NOREKIN ATZIZKIA	
			FARMAZIA LAUGARREN MUSIKA NOTA				ROENTGEN XENONAREN SINBOLOA
AGINTARI ISLAMDARRA KIROLA EGI- TEN DUENA				ELTXOA IODOA			
					NEUKAN		

Kike Amonarizen umorea

Belarrietako mina

Oporretan tolosar bati gertatua. Hegazkina hartzten zuen bigarren aldia omen zen. Pilotuak lurreratzera zihoala esan zuenean, maletategien atetxoak itxiz erdiko korridoretik zetorren azafata, gizona zeharo izututa zegoela ohartu eta inguratuta:

- Arazoren bat, ala?
- Hegazkinean ibili nintzen aurrekoan, lurreratzeko momentuan sekulako belarriko mina jarri

zitzaidan eta ez dakit zer egin.

– Zaude, lasai! Txikle pare bat emango dizut eta ikusiko duzu zer alde sumatuko duzun...

Hegazkina lurreratu eta bidaia-riak hegazkinetik ateratzen ari zirela, tolosarra irteera atera iritsi zenean, azafatak:

- Txikleekin hobeto, ezta?
- Ikaragarri ondo! Ez dut ezer sentitu! Baina orain... nola ken ditzaket belarrietatik?

Soluzioa

A	H	I	L	A	R	O	N	A	B	A	I	K	U	S	K	A	K	K
H	I	N	K	U	B	I	K	O	K	U	I	A						
F	E	N	I	X														
N	A	B	A	I	K	U	S	K	A	K	K							
A	Z	K	A	R	A	T	E	S	U	I	T	Z	A					
A	R	T	E	A	B	O	T	I	K	A								
K	I	R	O	L	A	R	I											
S	B	A	F	A	D	A												

GURE IZARRAK

MIKEL INSAUSTI
IRATXE FRESNEDA
KOLDO LANDALUZE

GARA 

Honako hauek dira, egunero, GARAn, Zinemaldiko kritika hoberenak eta informazio osatuena eskainiko dizkizuten taldeko aurpegi ezagunenak.

Liburuak

KRITIKA

Osaba elefante.

Testua eta irudiak: Arnald Lobel.
Pamiela-Kalandraka. 65 orrialde. 15 euro.

Haur eta gazte literatura

Xabier Etxaniz Erle



Atea zabaldu zuen

Arnald Lobel oso ezaguna da haur txikien literaturan; euskaraz ere aspaldi argitaratu ziren haren lan batzuk eta *Sagu kon-tuak* paregabe hura bezala idazle eta ilustratzaile honen zen-bait lan plazaratu izan dira. Azkena, 1981ean kaleratu zen *Osaba elefante* hau.

Albumak baino, liburu ilustratuak diren lan hauetan egileak istorio baten barruan hainbat gertakari kontatu ohi ditu, hainbat istorio txiki, eta oraingoan ere antzeko egitura erabili du. Istorioa kontatzen duen elefante txikiaren gurasoak nabigatzera joan dira belaontzi batean, elefante txikiak, aldiz, etxean gera-tzea erabaki du: “Ni ez nintzen joan haiekin. Tronpa mukiz beteta eta eztarriko mina neukan. Eta ohean gelditu nintzen” (6. orrialdea). Egoera horretatik abiatzen da liburu honen argu-mentua. Narratzailearen gurasoak itsasoan desagertu ondoren osaba etorriko zaio eta haren etxera eraman.

Osaba ilobaren topaketa, bidaia, osabaren jarrera bizitzaren aurrean... oso modu sinple eta, era berean, goxoan kontatzen zaizkigu. Guztia haur, barka, elefante txiki baten ikuspegitik narratua... eta amaiera lortuarekin. Izan ere, istorioaren zirku-lua itxi egiten da egileak ederki jositako amaierarekin, eta isto-riorearen kapitulu zerrenda borobilduz (osabak atea zabaltzean hasten dena, osabak ixten duenean amaitzen baita).

Animalien pertsonifikazio argia dugu, Lobelek bere lanetan egin izan ohi duen bezala, eta oso pertsonaia gutxirekin (esku bateko hatzekin konta daitezke liburuan ageri direnak) istorio sinple, arin eta hunkigarria erakusten zaigu.

Elefante txikia bakarrik dago etxean eta halako batean “loge-lako atea zabaltzen entzun nuen. ‘Kaixo, zure Osaba Elefante naiz’, esan zuen ahots batek” (8. orrialdea) eta une horretatik aurrera Osaba Elefante eta ilobaren arteko harremanaren berri izango dugu, nola joaten diren elkar ezagutzen, nola bidaiatzen duten osabaren etxera, hango jolasak, istorioak, gertakariak... hainbat kapitulutan banatuak. Lobelek, arestian aipatu bezala, osotasun batean hainbat istorio labur kontatzen baititu. Horre-la, lanpara piztean ahots bat entzuten dute eta hortik abiatuta lanpara magikoaren mundura eramaten gaitu egileak (Aladino-ren lanpara gogoraziz) harik eta amaiera harrigarria suertatu arte. Eta harriduraz, umorez, maitasunez joango da iloba eta Osaba Elefantearen istorioa osatzen, lotzen, korapilatzen isto-rio handi bat erdietsi arte.

Horregatik guztiagatik, testuaren, irudiaren, itzulpenaren eta edizioaren kalitateagatik gozatu ahal izango dugu iloba eta Osaba Elefantearen artean igarotako “egun zoragarri” horiekin. ■

Ez hain aspaldi egindakoen aitorpenak

Maiatzean aurkeztu zuen Anjel Lertxundik azken eleberria. *Etxeko hautsa* nobela narratzaileak aitari egiten dion aitorpenarekin abiatzen da: Franco hil aurreko azken urteetako batean ETako bi kide garraiatu zituela herri batetik bestera. Aitak ordea, ezin dio ulertu esaten duena, gaitz degeneratibo baten erruz. Semeak kontatzen


jarraituko du, halere; eta kontatu ahala, egindako hautuei buruzko zalantza moralak joango zaizkio sortzen, irakurlea ere bere burua auzitan jartze-ra gonbidatuz. Gure his-toria hurbilak utzi-tako oroitzapenen sarea osatzen joan-go da narratzailea, baita iragan horrek gaur egun duen eraginaz gogoeta egiten ere. ■



Etxeko hautsa.
Anjel Lertxundi.
Alberdania.
241 orrialde.
18 euro.

Gerraren erretagoardiako lan zikinak

1938: urtebete pasa da faxistek Bilbo hartu zutenetik eta hiriburutik hurbil dagoen herri batean bi hari gurutzatuko dira. Auto ofizial batean datozen zenbait frankista nabarmenena, batetik; Basabe-Uriarte familiarena, bestetik. Gerra irabazi dute-nak alde batean, historiaren biktima suer-tatu direnak, bestean. 70 urte geroago, Basabe-Uriarte familiako kide batek, Jose Santosek, etxeko ganbaran garai hartako gertakariak berreraikitzeari ekingo dio, gauzak argitu nahian. 36ko Gerraren erre-tagoardian kokatu du azken nobela Jose Inazio Basterretxeak eta frankistengan jarri du begirada, *Azken tranbiaren itzala* idazte-rako orduan. ■



Azken tranbiaren itzala.
Jose Inazio Basterretxea.
Elkar.
161 orrialde.
15,25 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Gure jokua.
Kaskezur.
Labateltueyo.
Iraupena: 51'45".
10 euro.

Mugan bizi direnek ez dute mugarik

BAZTANDARRAK burugogorak eta tematiak omen dira, eta zakurra oso urrun bidali eta bateria jotzailea aldatu ostean bueltan datoz berritro. Diskoaren izenburuan agerian uzten duten moduan musika beraientzat jokoa edo jolasa da, eta horregatik estilo ugaritan barrena aritzea gustuko dute. Gai dira rock klasikoa, funky eta psikodelia batzen dituen piezarekin hasteko, Negu Gorriak-en kanta dantzagarrietatik hurbil aritzeko eta punk-rock bizi

zein zoroa jorratzeko. Mugan bizi direnek ez dute mugarik. Hori gutxi bada, instant batean armonika atera eta bluesaren arima kanpora aterako dute edo doinu arabiarrok rock intentsitatez harrapatuko dituzte, besteak beste. Hitzetan, maitemina, galdera existentzialak, Bagdadeko gorabeherak, martzianoen inbasioak eta bestelako istorioak dituzte berbagai.

www.myspace.com/kaskezur

Kaskezur

«Geroz eta argiago dugu hitz txarrekin ez dela kanta onik»

Gaur egun ezohikoa bada ere, psikodelia zaleak zaretela antzematen zaizue...

Psikodelia ohiko bideetatik ateratzen da, hori ona da. Gaur egun kontsumo azkarreko kanta prefabrikatuak entzutera behartzen gaituzten garaietan, osasungarria da patxadaz musika askeagoak entzutea.

Gaiak ezohikoak, eta hitzak luze samarrak dira. Irudimen handia duzue edo espresatzeko behar handia?

Izerdi handienak hitzak egiten botatzen ditugu, gehien kostatzen zaiguna da. Agian esfortzu hori da ezohiko egiten dituen. Geroz eta argiago dugu hitz txarrekin ez dela kanta onik.

Musika eta hitzetan, kliseetatik alde egiten saiatzen zarete? Helburu kontzientea da?

Bai kontzientea da. Ideiak behin eta berriz errepikatzen direnean azkenean aspertu egiten dute eta diskoaren



ren izenak dioen bezala musika jolasa da eta gauzak beste modu batez egiten saiatzea jolas horren zati handia.

Ireki begiak. Neskalgun "komunistak" arriskutsuenak dira? Bildu koalizioaren eta Ezker Batuaren hondamendiaren garaietan bada komunistarik?

Neskalgun kapitalistak arrisku-tsuagoak izateaz gain, garestia goak

dira. Ez dakit komunistak askorik egonen den, baina ideia komunistak askorekin bat egiten duen jendea dago; are gehiago, egungo sistemak pot egin duenean eta horrenbeste jende diskriminatzen denean.

Oasi ederra. Etorkinentzat keinu gehiago egin beharko genituzke? Nola bururatu zitzaizuen kanta hori?

Berez emakumeari buruzko kanta da. Etorkinei keinu gehiago egin beharrean, herrialdeen arteko elkartasuna aldarrikatu beharko genuke.

"Kasetteak, biniloak, tertzioko gargaardoak, errobotak...". Faltan botatzen duzue iragana?

Ez dugu iragana faltan botatzen, baina ohitura asko mantentzen ditugu oraindik, CDak eta biniloak erostea bezala. Izan ere, etorkizunak gauza onak eta txarrak dakartzatza, eta hobe bakoitzetik onena hartzea. ■

Ezpalak

JON TORNER

Kale-ikuskizunek protagonismo handiagoa izango dute Maitaldian



DANSOMANIE

IRAILAREN 9TIK 18RA egingo da Miarritzeko Maitaldia dantza jaialdiaren 21. edizioa. Norvegiako Dantza Konpainia Nazionalak irekiko du konpainia ezagunen eta gazteagoak diren ikuskizunak uztartuko dituen egitaraua. Kaleak, bestalde, protagonismo handiagoa hartuko du aurtan. “Krisi garai hauetan, euren buruak ezagutzera emateko zailtasunak dituzten balio artistiko handiko konpainiei aukera bat eman nahi izan diegu”, adierazi du Thierry Malandain Maitaldiko programazio zuzendariak. Zentzu horretan, dantzari eta koreografo gazteek hainbat emanaldi eskainiko dituzte Miarritzeko kaleetan, euren obrak publiko zabalagoari erakusteko. Dantza emanaldiez gain, bestelako ekitaldiak ere izango dira jaialdiak iraungo duen bitartean. Mediatekan, esaterako, dokumental sorta bat eskainiko dute, eta argazki eta ikus-entzunezkoen osatutako erakusketak ere izango dira ikusgai. Interneten: www.letempsdaimer.com.

Igor Yebra, Josemi Carmona eta Dulce Pontes Getxo Folk-en

KORRONTZI eta Oainkari taldeek Igor Yebrarekin batera eskainiko duten *Urratsa* obrak irekiko du irailaren 8an Getxo Folk jaialdia. Areetako Geltokiko plazan eskainiko dute espresuki jaialdi honetarako sortutako ikuskizuna, iluntzeko 21:00etan. Agertoki berean, Eskoziako The Unusual Suspects taldea (9an), Aljeriako Idir musikaria (10ean) eta Dulce Pontes fado kantari portugaldarra (11n) arituko dira. Emanaldi horietarako sarrerak 5 eta 15 euro artean salduko dira, eta horiek hasi baino apur bat lehenago, arratsaldeko 19:00ak aldera, beste hainbat musikaririk eskainiko dituzte kontzertuak, Maria Berasarte donostiarrak eta Josemi Carmona gitarrista madrildarrak tartean. Egitaraua: www.getxo.net.

Asier Altunak zuzenduriko *Bertsolari* filma Donostiako Zinemaldian izango da eta ondoren, Golem banatzaileari esker, zinema aretoetan ikusi ahal izango da, urriaren 14tik aurrera. Txintxua Films produkzio etxearen pelikulak bertsolaritza du ardatz, isiltasunen eta bertsoak abesteko artearen garrantzia azpimarratuz. Maialen Lujanbiok eta Andoni Egañak hartu dute parte, besteak beste.

Industria ondareari

buruzko erakusketa izango da ikusgai irailaren 22ra arte Bilboko Zabalguneako kultur etxean. Hego Euskal Herriko eta Espainiako Estatuko ehun eraikin eta lekuren argazki-bilduma osatu dute, bakoitza kokatzeko beharrezkoa den informazio zehatzarekin batera. Tartean, Tabakalera, Bizkaiko Zubia, Orbaizetako armen fabrika eta Arabako Gesaltzako gatzagaren irudiak bildu dituzte. Industria Ondarea Kontserbatzeko Nazioarteko Batzordeak antolatu du, Eusko Jaurlaritzaren babesarekin. Argazkian Sestaoko (Bizkaia) Labe Garaiak ageri dira.



Txiki Agirre 'Keixeta' (Arroa, Zestoa, Gipuzkoa, 1963) margolariaren 30 lanez osatutako erakusketa izango da ikusgai Donostiako Ekain galerian urriaren 15era arte. “Maite dut umek margotzerakoan duten freskotasuna. Heltzen hasten garenean birjintasun hori galdu egiten dugu”, dio Keixetak: “Lan hauetan garrantzitsuena prozesua, papera eta tintaren erabilpena, eta kolorea eta orbanak dira”.

● **Carles Belda trikitilariak Berrian** (Katalunian eta Euskal Herrian soinu txikia jotzeko dagoen desberdintasunaz): «Ezberdintasun hori orokorra da, eta soinu txikian agertzen da. Hemen bada jarrera kolektibo bat, beti pentsatu dut hemen sozialismoa posible izaten ahal dela, baina Katalunian ez; han anarkista hutsak gara, bakoitza bere aldetik ibiltzen da, eta hori trikitian sumatzen da. Hemen bada eredu bakarra abantzu, badira eskola handiak... batzuetan trikiti topaketek manifak dirudite! Posizioak, behatzak, ta-ta-ta... Kubako desfile bat ematen du! [barrez]. Ez da kritika bat, e? Ongi da, baina gu franko ezberdinak gara».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@ DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

JON TORNER

Blanco nocturno. Ricardo Piglia.
Anagrama (2010). 300 orrialde.

ELEBERRI POLIZIAKOETAN, zenbat eta hildako gehiago agertu, autorea orduan eta baldarragoa dela esan zuen Fernando Savater filosofoak pasa den abuztuan Madrilén, Jorge Luis Borges (Buenos Aires, 1899 - Geneva, 1986) idazle argentinarrari eskainitako jardunaldietan. Ez dakigu idatzi gabeko arau hori nobela beltz guztietan betetzen den ala ez, baina egia da Ricardo Pigiaren *Blanco Nocturno*k Gizon Jakintsua-ren hitzak berresten dituela. Onerako, noski. Piglia (argazkian) ere Buenos Airesen jaio zen -1940an-. Hainbat liburu ditu argitaratuak eta *Blanco nocturno*rekin 2010ean plazaratutako nobela beltz onenaren saria jaso du aurtengo Gijongo (Espainia) Aste Beltzean.

1970eko hamarkada hasieran, Juan Domingo Peronek (1895-1974) Argentinako presidente kargua hirugarrenez hartu



aurreko garai gorabeheratsuetan, Tony Durán-ek, Puerto Ricon jaiotako atzerritar galeaiak, sexu hirukote gartsua osatu du Ada eta Sofia Belladona ahizpa bikiekin. Buenos Aires probintziako herri bateko familia nagusietako bateko alabak dira, gizon askok desio dituzten perla preziatuak.

Mundua deskubritzen ibili dira eta etxera itzultzean Durán e(ra)karri dute. Zaldi lasterketa polemiko baten ostean, atzerritarra hilik topatuko dute haren hotelean. Antza, diru kontuak daude tartean.

Dirua. Ustelkeria. Apustuak. Sexua. Alkohola. Polizia burugorrrak. Kazike aberatsak. Politikari lapurrak. Desertua. Hautsa. Izerdi usaina. Bakardadea. Mugak. *Blanco nocturno* nobelako osagaiak beste autore amerikar batzuen testuak dakartzate gogora, Txalaparta argitaletxeak *fitxatutako* Paco Ignacio Taibo II eta Eduardo Antonio Parra mexikarren eta Ramon Diez Eterovic txiletarraren narrazioak, esaterako. Alanbre fin baten ganean dantzan dabiltzan pertsonaia karismatikoak, elkarriketa biziak (borroka dialektikoak) eta umorea, istorioaren garraztasuna arintzen (ala nabarmentzen?) duen ironia, aipatu autoreen liburuetan errepikatzen diren osagaiak dira guztiak, eta Ricardo Pigiaren nobela ere ez da salbuespena. Onerako. ■



Atxaspi Hotela



ametsetan bezala.

Bittiria 24

Lesaka (Nafarroa)

T 948 637 536

hotela@atxaspi.com

www.atxaspi.com


Ihesi

Testua eta argazkiak:

ITXARO BORDA

Euskal Herria ezagutuz:

Bokale (Lapurdi)-Vieux Boucau (Landak)



Baiona, Capbreton eta Port d'Albret-eko jendeen artean, Aturri ibaiaz jabetzeko mendeetako borroka eraman zen. Jakina, baionarrek irabazi zuten, errekaaren aho berria Bokalen finkatuz. Ondresko oinezkoen blog batean aurkitu genuen lehen aldiz ibilaldi harrigarri horren aipamena: arras zehaztua ez zen arren Bokaletik Ondresera joan zitekeen Aturriren ohe ohiaren aztarnetatik, Garros eta Turc deituriko urmaeletaraino.



Oihaneko bidea, Landetan. Duela zenbait mende Aturri ibaia zegoen inguru hauetan.

Aturriren ohe ohian

1571EAN, Charles IX.a Frantziako erregeak, baionarren negar-auhenak entzunik, Louis de Foix ingeniariari Aturri Lapurdin kokatzeko lanak manatu zizkion. Derragula ideia 1565az geroztik airean zegoela eta aurreneko ikerketak Domingo Iparragirre euskaldunak jorratu zituela. Halatan, diru franko sartu zen Trossoateko diga luzearen eraikitze eta 1.800 metroko urrakoaren zultazeko. Galerna izugarriek eta Capbretoneko herritarren erasoek zaildu zituzten obrak. Lanak aitzina zihoazela uholde mirakuilutsuak ibaiari itsasorako zintzurra zabalduko zion Bokaleko ahoan. Ubi-dea sakontzeko ekintzen gastu astunegiengatik oldartu ziren baionarrak, gertakarien lekuko Aturriz desjabeturiko landetarrak irri trufariz zeudela.

Landetarrentzat, Angelutik Port d'Albreteraino garaian arabera, duna eta inta artean zebilen Aturriren desbideratzea ohoin-

tza argia izan zen. Literatura markatu zuena. Rosny idazleak 1391n *Itsasoa lebian* nobela plazaratu zuen eta zazpi urte beranduago Fernand Lotek *Ibaia ebatsi zuen gizona*. Euskaldunek aldiz euskarazko kantutegiko amodiozko abestirik ederrenetakoa sortu zuten, Baionan egurrez altxatu barra goraipatuz. Aturriren antzera burutik ezin kendua.

Barnealdeetatik erreka garraiatutako ekonomia aberatsa garatzen zen ibaiaren azalean, ezpondetan edo portuetan. Capbreton, demagun, Donibane Lohitzunerekin batera, baleazale ausartez mukuru zegoen. Joana Labrit Nafarroako erreginak ontzien habia gisa apailaturiko Port d'Albret-ek ez zuen Louis de Foixen obretatik lekora anitz iraun. Azken hamarkada hauetan udatiarrei esker berpizten doa hargatik. Vieux Boucau eta Capbretonen ageri dira aitzinako egur eta burdinazko digak. Ezen Baionako barra XIX.



mendean harri gotorrez zurkaiztu baitzen, itsas ahoko hondar mendiak dragatu behar ziren eta diren bitartean. Batzuek diote lan astun eta erraldoi horiek ibaia desbideratu nahiaz baionarrak gaztigatzeko direla.

Ebatsitako ibaiaren hondarrak

Ibai bahitu bakarrenetarik bat da Aturri. Bokalez haratagoko landa eremuari interesatzean karta geografikoak bilatzen hasten gara. Baionako elkarte zientifikoaren adiskideen aldizkariak 1925eko René Cuzacqena dakar. Askotan erabili den plana, oinezko ibilbideak asmatzeko edo historia izugarriaren inarros-teko. Hossegorreko aintziraren hegian ere aurkitzen da bat. Ohartzen gara halaz Landa maritime osoko lakuak eta urmaelak Aturri ohiaren beso hondarrak direla: Moisan, Pin-solle, Hossegor, Turc eta Garros. Pinuen artean, noiztenka ur beltzen usain bortitzez baizik nabaritu ez daitezkeen putzuak ahandi gabe. Funtsean, Aturriren landetar memoria ezabatu zen, kasik arras, Herbehereetan bezala, ur biltokiak, itsasorako ubideak eta geroa-go barta eta gunee istiltsuak arbolez estaliz.


Landetako laku eta urmaelak Aturri ohiaren beso hondarrak dira. Bokaletik abiatuta, Garros-eko (ezkerrean) eta Turc-eko (eskuinean) urmaelak aurkituko ditugu lehenik. Beheko argazkian, berriaz, Trossoateko diga ageri da, Aturri Lapurdira eramateko XVI. mendean egindako obra handia.

Napoleon III.ak bozka arazi 1857ko legeak herriei manatzen zien lurren lehortze-ko baliabideak bideratzea, eta xarak pinuz landatzea. Zuhaitz mota hori aspalditik zetzan Landetan, arraxinaren eta bikearen tratuaren iraunkortasuna goraiatzaren delako Erdi Arotik gaur arte. Aturri desbideratu bezain laster baserritarrek hasi ziren peza bustiak idortzen enperadore txikiaren ordreen aiduru egon gabe. 1870etik goiti egiazko hobekuntza sentitu zen, paludismo arriskua urrunduz bereziki. Baina ohiko artzain zutoindunek lana galdu zuten, landaketen karietara funtsak pribatizatu zirelako. Etxetiar bihurtu ziren, pinu-gatz biltzaile, oihanzain. Bigarren gerratik hona exodo erruralaren trenak hantu zituzten, beraien haurride euskaldunekin batera.

1883ko maiatzaren 25ean piztu ziren Aturriren ohe ohiaren hondar aztarnak ezkutatu-ko zituen lehen burdin olharen tximiniak. Bokale-Tarnozeko ingurua berehala industrializatu zen, eskualdea hautatu baitzen ingelesekin ikatza eta hegoaldeko euskal meategietatik igorri burdina itsasoz sartzen ahal zirelako moldatuak izateko. Langileak etorri ziren milaka errokan altxatu fabriketara. Bokalen jada desagertzear dagoen metalurgiaren kultura proletaria hedatu zen. Karia horretara ikusgarria da Notre Dame des Forges elizaren horman agertzen den burdin beharginen tresnekin zizelkatu amabir-jinaren eta haurraren irudia.

Bitartean Capbreton, *gouf* itsas lei-zearen pareko alargun kontsola ezina, ahulduz joan zen. Napoleon III.ak portua sotiltzeko obrak akuilatu zituen. Estakada ospetsuarenak adibidez. Sardina arrantzako ontzi apurrak zenbatzen dira oraino luxuzko bustilekuaren aldamenean. Vieux Boucau bezala udatiarrekiko harremanetatik hazten dabil





Estacade décidée
par Napoléon III
à Capbreton
le 11 septembre 1858

Capbreton, artatzeko bainuak eta surf ekimenak direla medio. Ez dezagula ahantz erans-tea bertan dituela erroak *cabernet* izeneko mahats sortak.

Aturri, landetarrek galdutako urrea

Aturri ibaia 335 kilometrotan harilkatzen da Ahunamendietan jazarritz, Tarbes, Aire, Grenade, Sant Sever, Akize, Baiona trabesatuz, itsasoan Bokalen urtzeko. Erreka franko irensten ditu bidean zehar. Esku-zabalekoa izenez, uholdez suntsitzen ez dituenean, hegiak aberasten ditu. Landetarrak ulertzen ditugu. Urrea zitzaien ihes joan Louis de Foixen ametsa bete zenean. Baionarren gutizia bekaitza, naski, ez zuten sekula barkatu, landetarren eta euskaldunen arteko gaurko lehiaketak, zeingehiagokak eta pataskak aintzakotzat hartuz.

Historia eder horren hatzak xerkatzeko goizik esnatu behar da. Ahalaz egun eguzkitu batez. Bokale eta Tarnoze bitarteko gune urbanizatueta ibiltzean ez zaigu erraz, hor, behin, erreka alfer eta bihurri bat isuri zela irudikatzea. Bokale gainera hupatu orduko ageri dira, igandez ere, Atlantikoko altzairutegien keak, itsasoaren marruma hurbil haute-maten dela. Bokaletik Tarnozera hiriartetik



Ezkerrean, Capbretoneko portuko Estakada ospetsua, Napoleon III.aren aginduz eraikia. Capbretonen dago halaber eskuineko argazkian ikus daitekeen errotulua, bertokoen eta, orobat, landetarren memoria onaren adierazgarri.

ernatu ordez, hobe dugu menturaz antzinako ibiltari zailduen xendretarik lerratzea, hura baita segur aski Aturriren ohe ohiaren zigiluaz seinalatua karta zaharretan. Baina ez da huts egin behar Tarnozen, munduan geratzen daitekeen Lénine etorbidearen astalkatzeko plazer berezia.

Baionatik Soulacera zihoan erromatar bidea hartzen dute Santiagora doazen beilariek ere. Guk berdin egingen dugu, dagoeneko Landetako departamenduak itsasertzetik marrazturiko txirrinbide txukunaz baliatuz. Sable eta oiha artean, Aturri ohiaren pare. Hemezortzi kilometro daude Baionatik Capbretonera eta arratsalde apalean RDTL autobus konpainiarekin itzuliko gara.

Hiritik oihanera

Trossoateko digaren bostehungarren urteburua ospatzen duen harriaren maldatik mirets dezakegu Aturriren desbideratzeko eraman zen obragintza osoa: harri mizeniarrak metatu ziren eta ibaiaren besoa hautsi, ingurumingururik gabe, itsasora zuzen isur zedin. Forges auzoan gero kapitalismo sozialaren irakaspenen arabera langile pobreentzat altxatu eskola, egoitzak eta behiala azaldu eliza ikusiko ditugu. Agudo orde, oihanak irentsiko ditu gure urratsak. Haizeak pinuak balakatzen ditu, isiltasuna eta itzal abegikorra troxatuz. Txirrindularien pistaren atarian, Tarnozeko lurretan gara jadanik.

Metro auzoko hondartzatik uhinen gaziaz gozatuz han eta hemenka erein urmaelak saihesten ditugu. Ondresko Garros eta Turc-



Hossegorreko aintzira ezkerrean. Eskuinean, itsasoa Vieux Boucaun.

ekoak ez daude urruti. Anguillères ubidea ezkerrean eta Boudigau erreka gidari, bospasei kilometro egin eta Capbretonen gara. Ikusten ahalko ditugu lehenagoko biztanleek zein abilki antolatu zuten Aturriren ohe malguaren lur bilakatzea. Capbretonen nahi izanenez gero Hossegorreko aintziraren ezpondatik segitu dezakegu, beti txirrribidetik, Nafarroako Henrike II.a erregeak “*mon port*

d’Albret” izendatzen zuen Vieux Boucaura iristeko.

Ibaiaren hatz ezabatuetatik lerratzean, izerdi eta hatsanka, historia ukigarriaren ontasun kulturalaz jabetzen gabiltza. Baionako lanak ohoratzen dira liburuetan. Aturriren behialako hedapenarekiko ezer gutxi agertzen da ordea, ebasketa, landetarrek salbu, denek ahantzi nahi bailuten. ■

guk ere euskaraz!

MATRIKULA ZAITEZ DONOSTIAKO EUSKALTEGIETAN

2011-2012 IKASTAROAK

Euskara ikasteko diru laguntzak









Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Fukushima: erradioaktibitatea eta “lehoinabar larrua”



WWW.REUTERS.TV

OPORRETARA JOAN AURRETIK adierazi genuen Fukushimak berri interresgarriak eskainiko zizkigula denbora luzez. Jakina da une honetan Fukushimako erreaktoreak kontrolpean izateko lanean ari direla, baina zer dakigu igortzen ari den edo igorritako erradioaktibitateaz?


Igortzen ari denari buruz igortzen ari dela baino ez dakigu. Antza, kopurua ez da hasierako egunetakoaren adinakoa, baina gehiago ez dakigu.

Igorritakoari buruzko datuak, berriz, kezka sortzekoak dira. Lehen egunetan isuritakoari ipar eta ipar-mendebaldeko haizea —euriteekin batera— gehitu behar zaizkio; horrek erradioaktibitatea “lehoinabar larrua”-ren antzera banatzea eragin du. Hau da, gerta daiteke zentraletik bost kilometrora dauden eremu batzuetan erradioaktibitatez ez izatea eta, aldiz, 150 kilometrora dagoen batean bizia arriskuan izateko adinakoa izatea. Nola detektatu lehoinabar azaleko orban beltz anarkikoak lurtean? Ikusten denez, honek segituko du eta luzaroan gainera.

Diamantezko planeta aurkitu dute

Nazioarteko zientzialari talde batek orain arte ezezaguna zen beste planeta baten berri eman du *Science* aldizkarian. Planeta hori Lurretik 4.000 argi-urtera dago eta pulsar motako izar baten inguruan biraka ari da. Bere buruarekiko bira bat egiteko, berriz, bi ordu eta hamar minutu besterik ez ditu behar.

Planetak baditu, ordea, horiek baino are ezaugarri bitxiagoak. Diametroa Lurrarenaren bostena besterik ez du, baina masa Jupiterrenaren adinakoa da. Ikerlarien arabera, karbonoz eta oxigenoz osatutako kristala da, hau da, diamante erraldoia.



WWW.HERALDO.ES

Ikerketa zuriek egiten dute batez ere

AEBetan 2000 eta 2006 urteen artean abian jarritako proiektuetako ikerlarien jatorria aztertu dute. Aditzera eman dutenez, bitarte horretan ikerlarien %1,4 afroamerikarrak izan ziren, %3,2 hispanoak eta %16 asiarrak; baina AEBetako populazioan afroamerikarrak %13 dira...

<http://ttiki.com/30931> (Frantsesez)

Aurten ere ozono-geruzaren eboluzioari begira diezaiokegu

Jada hasi da, azken 40 urteotan bezala, ozono-geruzaren ahultzea Antartikan. Azken urteotan baikorrak izateko arrazoiak izan ditugu, zuloa gero eta txikiagoa dela baitirudi. Aurten gertatutakoa urrian aztertuko dugu, baina bitartean ondoko helbidean jarrai dakioko zuloaren eboluzioari.

<http://ttiki.com/30932> (Ingelesean)

Itsas igarobideak zabaldu dira Ozeano Artikoan

Berotegi efektuaren eraginez, glaziar ugari urtzeaz gain, Ozeano Artikoan itsasontzien nabigagarritasuna hobetu da. Aurten, abuztuaren erdira arte itxaron egin behar izan da aurreko urteetan zabalduko bi itsas bideak zabaltzeko.

<http://ttiki.com/30933> (Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Bihotz tratua

LANDAREZALEAK landare berri bat sortzetik, gero landare horien tratanteek etekina kentzen dioten arteko tarteaz egutzeko, munduko lore eta landareen hiriburua den Herbehereetako Aalsmeerri buruz aurreko artikulua idazten ari nintzen egunean, iloba pareta eta hauen lagun bat kontzertu punki, gaur egungo punki, batera eramango ote nituen eskean eta, neronek ere, aspaldiko partez, gisa honetako gozatu baten premia banuelakoan, hor abiatu gara laurok Eibarko Amaña aldera.

Tokia bera da Amaña punkia! Porlanari emandako aldapa tzarretan ez da landareentzat zirrikitu askorik. Kalegurutzet batean oholza eta jendetza. Bihotzez porlan-estali. Bihotzak kiriotsu *Bihotzaren aginduak* kantuan. "... betetzeko baitira, bihotzaren aginduak... ez ditzala buruak hil bihotzaren aginduak...". Bihotzeko dudak Surfin Kaos kantuan... Bihotza han eta burua Aalsmeerren, pulamentu eskasa... Han dioten eran, ganora eskasa!

Aalsmeer munduko lore eta landare tratuaren bihotza, mundu osoan ekoizten den landare eta

loreen herena bertatik igarotzen da. Herbehereetatik saltzen den idi-bihotz (*Tulipa sp.*) ekoizpen osoa bertatik doa, adibidez. Eta ez da bihotz gutxi, urtero laurhunen bat milioi ale. Idi-bihotzak emango dituzten erraboilak edo aietak ere bertatik esportatzen dira, urtean pare bat mila milioi inguru...

Asia Txikia du jatorri idi-bihotzak, Kurdistán osoa eta Kazakhstan aldeko Pamir, Tien Shan eta Hindu Kush mendiak aipatzen dituzte. Anatoliara zabaldua, *Tulipa gesneriana* originala hartu eta Istanbulgo baratzeetan espezie berriak sortzeari lotu zitzaizkion turkoak. Ehunka espezie egin eta harro erakusten omen zituzten. Ez da alferrik Turkiako eta Irango ikur. Handik Europaratzeko bi bide aipatzen dira. Bata XI-XII. mendeetan, gure alde honetan ibili ziren mairuek, Toledoko Ibn Massalek, agidanean, Abu-l-Jayr botanikariak bere *Umda* obran dienez. Bestea, geroxeago, XVI.lean bateko eta besteko enbaxadoreek, tratua ez beste zer egin handirik gabe izaten diren horiek, Alemaniara, Austriara, Parisera eta tratanteen habia Herbehereetara... Handik mundura!



Baratzeak

Behin baino gehiagotan irakurriko zenuen orriotan, euskaldunok "baratze" hitza erabili beharko genukeela "lorategi" baldres ddottorearen ordeiz. Gure baratzean barazkiez gain, apaingarri, sendabelar, lokarrietarako gai, sukaldarako belar, errituetarako landare, mitiko, fruta-arbola... denetatik da. Honexegatik behingoz gure estiloa landu nahi izatera, hauek denak eraman behar ditugu berdegune guztietara, jendea bizi garen inguru guztietara.

Hauze egin dute Zumaia-miko etxe tarte honetan, baratze dotorea. Jolasgune, belaze, eta tartean barazkiak. Ez edonola gainera, izenak ikasteko, egutzeko, ukitzeko, edonor inguratzeko eran... Bejondeizula zumaia-miar horri.



JAKOBA ERREKONDO

Babeslea: Alkartasuna

ALKARTASUNA
Usurbilgo Baseritarren Kooperatiba

EGOITZAZ GAIN, ZERBITZU BERRIAK ETA GASOLINDEGIA

KOKAPEN BERRIA USURBILEN

Atallu Industrialdea, 6 - 26. lokala

T 943 361 114 / alkartasuna@usurbil.com

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

XVI. mendeko haur garbien gidaliburua

Arrastoak

Irailaren 11ren
10. urteurreneko
programazioa

QUENTIN MASSYS



Rotterdameko Erasmo 1517an. Hamahiru urte geroago haurren portaera egokiari buruzko lana idatzi zuen.

FRIBURGO, SUITZA, 1530. Rotterdameko Erasmo *De civitate morum puerilium* lana argitaratu zuen, haurren jokabide egokia bultzatzeko jarraibide sorta. Erasmo berak lehen hezkuntzako eskolan ikasi zuen 13 urtera bitartean, 22 urtera arte agusti-noekin, eta ondoren Pariseko Unibertsitateko ikasle izan zen. Hiru ikas-guneetako diziplinak eragin handia izan zuen Erasmo gaztearengan. Orduz geroztik Eliza Katolikoa arbuatu zuen, eta ikastetxe katolikoei libreki pentsatzea galarazten zutela ondorioztatu zuen. Hil artean nagusikeriazko aginpide ororen aurka egin zuen.

Baina horrek ez zuen esan nahi haurrak hezi behar ez zirenik. Ber-

pizkunde betean, Erdi Aro iluneko ohitura basatiak baztertu behar zirela eta haurren gizalegezko portaera sustatu behar zela uste zuen. Hona hemen haurrentzat idatzitako lanean jaso zituen aholkuetako batzuk:

- Janari zati bat irentsi ezin baduzu, jira zaitez eta bota ezazu zuhurki.
- Eutsi sabeleko haizeei, sabela estututa.
- Goragalea baduzu egin oka lasai, botaka hastea baino nazkagarriagoa baita okari eztarrian eustea.
- Jira zaitez tu egitean, zure listuak inor busti ez dezan. Zoruan, listuarekin batera, zornea botaz gero, behin eta berriro zapaldu behar da, inori goragalea ez eragiteko.
- Ez eskaini zure mukizapia inori, garbitu berria ez bada-go. Mukizapian zintz egin ondoren, ez da egokia zapia

zabaldu eta hari begiratzea, zure sudurrak perlatu eta errubiak bota izan balitu bezala.

- Desegokia da koipez betetako hatzak zurrupatzeta edo jakan garbitzea. Mahai zapia edo ahozapia erabiltzea aholkatzen da.

- Zenbaitzuek, mahaian eseri eta berehala, eskuak platerean sartzen dituzte. Hori otsoek egiten dute, ez gizakiek.

Humanista holandarraren aholkuok garai hartako ohitura zikinen berri ematen digute. Eta ia 500 urtetan jokabide horietako batzuk asko aldatu ez direla ere adierazten dute. XXI. mendean gizakiak oraindik ez baitu lortu mukizapian perlatu eta errubiak bilatzeko tentazioari eustea.

HISTORY CHANNEL telebista-katea programazio berezia eskaintzen ari da irailaren 8tik 14ra, 2001eko irailaren 11ko New Yorkeko World Trade Centerren aurkako atentatuaren 10. urteurrena dela eta. Al Qaeda jatorrietatik hasi eta atentatuaren ondorioetara bitarte, gertakizunarekin zerikusia duten zenbait dokumental eta erreportaje emango dituzte kateak, arduradunen esanetan “gaia ahalik eta ikuspuntu gehienetatik jorratzeko”.

Eta irailaren 11n bertan, hemengo 14:46etan —lehen hegazkinak dorre bikietako bat jo zuen ordu zehatzean— 102 minutuko emanaldi bateratua eskainiko dute hainbat hizkuntzatan, historiari buruzko telebistak hainbat herrialdetan dituen kateetan.



Martxel Toledo
ESAITeko koordinatzailea

«Espainiartasun sentimendua areagotzeko diru-laguntzak erraz ematen dira»

Espainiako Vuelta Euskal Herritik igarotzeaz dago, baina txirrindulariak baino lehenago iritsi dira protestak, espero zitekeenez. Espainiar itzulia hemendik pasatzea salatu duten hamaika eragileren artean ESAIT nabarmendu da; hark hartu du gidaritza, nolabait. Horretaz eta beste kontu batzuez mintzatu gara, ondoko elkarrizketan, Martxel Toledo oiartzuarrarekin.

UNAI BREA

Argazkiak: Dani Blanco



Uztailaren 5ean eman zenuten lehen prentsaurrekoa Espainiako Vuelta Euskal Herritik igarotzea salatzeko...

Vuelta orain hamazazpi urte pasa zen azken aldiz Euskal Herritik, baina orduko hartan Nafarroako errepide batzuetatik igaro besterik ez zuen egin. 33 urte dira, berriz, EAEtik pasa ez dela. Ez dago esan beharrik garai hartan zergatik utzi zioten Vuelta hona ekartzeari. Iaz, Jaurilaritza PSE eta PP kudeatzen hasiz geroztik, bi alderdi horiek planteatu zuten normalizazioaren, erabiltzen duten hitz potolo horren aitzakiapean, hainbat kirol ekitaldi ekartzea hona. Espainiko saskibaloia selekzioa Gasteizen egon zen, errege eta erregina kopa finalak ere egin izan dira Euskal Herrian, eta dena borobiltzeko Vuelta ekarri dute.

Probokaziotzat jo duzue hori.

Bai, badakigulako alderdi hauek "normalizazio" hitza erabiltzen dutenean zertan ari diren. Uste dugu Vuelta Euskal Herritik garai honetan pasatzea, eta espreski guk herri "komantxe" esaten diegunetatik pasatzea –Zornotza, Elorrio, Bergara...–, probokazioa dela.

Vuelta antolatzen duen erakundeari, Unipublic-eri, bilera egiteko eskatu zenioten ekainean, baina hark ez dizue erantzun.

Adierazi nahi genien hemen hainbat kezka badaudela zaletuen artean, eta horietako bat da Vuelta hona ekarriz normalizazio itxura eman nahi dutela, baina gure uste-tan argi eta garbi egin nahi dutena Euskal Herrian espainiartasun sentimendua indartzea dela.

Euskal Herriko etapak bertan behera uzteko eskatu behar zenioten Unipublic-eri?

Gu ez gaude txirrindularitzaren aurka, ez gaude kirolaren aurka; guretzat garrantzitsua da Euskal Herriak horrelako ekitaldi bereziak bere gain hartzea, baina beste kontestu batean eta beste planteamendu batekin. Badakigu Espainiako Vuelta Espainiako Estatutik kanpo atera dela, Tourra ere Donostira atera izan dela, eta ez gaude horrelako ekimenen kontra. Dioguna da

gutxieneko errespetu bat zor zaigula nazio bezala. Normaltasunaz hitz egitera ausartzen dira, baina normaltasun eza da, tamalez, hemengo kirolariak Espainiako eta Frantziako selekzioekin aritu behar izatea. Normalizaziorik egokiena izango litzateke kirolari horiek beren selekzioekin aritzeko aukera izatea, eta horretarantz pausoak emanez gero, guk ez genuke inolako arazorik izango Vuelta bezalako ekimenak hemen ongi etorriak izateko.

**"Normalizaziorik egokiena izango litzateke kirolari-
beren selekzioarekin
aritzeko aukera izatea;
horretarantz pausoak
emanez gero, ez genuke
arazorik Vuelta bezalako
ekimenak hemen ongi
etorriak izateko"**

**Vuelta Euskal Herritik igarotzeagatik lehen protesta ekintzak egin dituzue honezkerok, eta izua ere zabaldu da, etapak egiten diren egunetan gerta-
daitekeenarengatik.**

Bere momentuan esan genuen erantzun koherentea emango genuela, eta baita ere ez genuela Vuelta hankaz gora jarriko, ez zela hori ESAITen asmoa.

**Diru asko bideratuko da Euskal Herri-
tik igaroko diren Vueltako etapa biak
finantzatzeko. Aipatu izan duzue
hobe litzatekeela sos horiek euskal
ziklismoa indartzeko erabiltzea...**

Aspalditik badaude, eta ez maila profesionalean bakarrik, desagertzen doazen lasterketak, diru-laguntza falta dutelako. Aipatu genituen batzuk, ezagunenak: Urkiolako igo-
era, Arrateko igoera... Euskal Bizikletak berak bat egin behar izan du Euskal Herriko Itzuliarekin, Eusko Jaurilaritzak laguntza murriztu zuelako. Eta zaletu mailan kasik egunero ogia da hori. Guretzat koherenteagoa da dirua Vueltako etapak pagatzeko erabili beharrean bertoko lasterketak indartzeko erabiltzea. Krisi garai honetan, herritarrok

estutu beharrean gabiltzala, Gasteiz 110.000 euro inguru jarriko ditu mahai gainean etapa bukaera bat antolatzeko. Aldiz, euskal futbol selekzioak eduki zuen aukera kanpora joateko, joan zen izan ere, eskatu zion diru-laguntza bat Eusko Jaurilaritzari eta ez zioten eman. Espainiartasun sentimenduak areagotzeko dirulaguntzak erraz ematen dira, eta beste gauza batzuetarako ez dago edo murrizten ari dira.

Kontuak kontu, Vuelta hemendik igarotzeaz dugu. Benetan, zein uste duzue izango dela euskal zaletuen erantzuna? Gerta liteke gehienak normal-normal kalera ateratzera animatzera, eta protestetan parte hartzen dutenak txirrindularitzarekin harreman gutxi izandako jendea izatea?

Ez dakit. Herri hau anitza da eta era guztietako iritziaik daude. Izan ere badira, esaten dutenak pozik egon beharko genukeela Vuelta hemendik igarotzeaz, hori ona dela guretzat. Ziklismoa zintzo-zintzo ikustera joango direnak egongo dira; gertatzen dena da kontu hau herri kontzientziatik ikusten dutenak, inposaketa modura ikusten dutenak, badutela eskubidea protestatzeko. Gure helburua izango da behintzat istilurik ez egotea zaletuen artean. Hori ez da gertatuko, ez dut uste. Gure asmoa da Vuelta hemendik pasa ondoren, bai antolatzailleak bai Vuelta ikusten duten guztiak jabetzea hau Euskal Herria dela, ez dela Espainiako beste zati bat, beste nazio bat dela, bere esku-bideak dituela.

Hitz egin dezagun txirrindularitza ez beste kontu batzuek. Gizonezkoen senior mailako futbol selekzioa, azken batean pasio gehien sorrarazten dituen, berriz itzuli da pare bat urtean jokatzeko egon gabe. Gatazka konpondu dela esan daiteke?

Ez, ezin da hala ziurtatu. Jokalari-
ek argi esan zuten aurten jokatu-
ko bazuten ez zela arazoa konpon-
duta zegoelako, baizik eta ikusten zutelako zaletuen aldetik beharra bazegoela partidua jokatu zedin. Guk behintzat argi daukagu bi urteko etena zeinen erruz gertatu zen.

Jokalariek kritika asko jaso zuten, alde askotatik gainera. Klub batzuek ere, batik bat Athleticek, gogor hitz egin zuten haien aurka.

Fernando Garcia Macua eta haren inguruko jendea ezagututa, nahiko logikoak dira horrelako presioak. Beste klubek, eta klub txikiagoek ere, bideratu zuten presio hori, esanez selekzioaren partidutik ateratzen zen dirua harrobiarentzat izaten zela, eta ez jokatu-ta harrobia ahultzeta zela. Guk argi eta garbi esan dugu hori ez dela inola ere logikoa. Selekzioaren parti-

dura joaten den jendeak, bere poltsikotik dirua jartzen duenak, selekzio horri laguntzeko eta horren alde urratsak emateko jartzen du diru hori, eta ez harrobira bideratzeko. Harrobiak behar bat du, eta zentzu horretan Athleticek eman du bere urratsa, lagunarteko partidua antolatuz, baina selekzioaren partiduen ondorioz ateratzen den dirua bideratu behar da, gure ustetan, eta pentsatzen dut jokalarien ustetan ere horrela dela, federazioak ofizialtasuna lortzeko erabiltzera. Besteak aitzakiak dira.

Jokalariei –batzuei– egiten zaien beste kritika bat da ez dela koherentea euskal selekzioaren alde hain jarrera gotorra agertzea eta gero Espainiako selekzioarekin aritzea.

Kontraesanik ez daukanak eskua altxa dezala. Oso erraza da kritika hori egitea. Gertatzen da futbolari bat behartuta dagoela, federazio batek deitzen badio, joatera. Zigorrak daude, lizentzia galdu dezakete. Alde horretatik, horrelako kontraesanak bilatzea erraza da. Baina horren aurrean erantzuna ere erraza da: aukera eman dezatela Euskal

Herriko selekzioek ofizialki jokatzeke, eta horrela ikusiko genuke jokalaria zer hautu egiten duen, Espainiakoa ala Euskal Herrikoa. Oraintxe bat bakarra dago, jokalaria behartuta dago, eta ez du ez hanka ez bururik horrelako kritikak egiteak. Kritika horiek, beti, zaletuen aurrean jokalarien izen ona zikintzeko helburua dute. Ez dut esan nahi Espainiarekin jokatzen duten jokari batzuk espainiar sentitzen ez direnik, baina segur aski beste batzuek, aukera emanez gero, gurea aukeratuko lukete. ■

MARCOS
okindegia

**Benetako
aitzinako ogia**

☎ 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)



Tolosako Babarruna



Hoberenak
soilik
aukeratzen
ditugu

☎ 943 650 253

www.tolosakobabarruna.com

SOLOZABAL
*Eskura ezazu teorikoa 5 egundean
edozein gidabaimenerako*

■ IKASTARO INTENTSIBOAK
■ CAP IKASTAROAK
■ ADR IKASTAROAK
■ GARRAIOLARIEN LANBIDE-
TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390

www.solozabalautoeskolak.es

Kalifikazio agentziak

S&P, Moddy's eta Ficht: finantzen hirukote santua

Krisi ekonomikoak agerian utzi du rating edo arrisku kalifikazio agentzien artean monopolioa dagoela: Standard & Poor's (S&P), Moody's eta Ficht. Europarregandik urrun dauden interes ekonomikoek kontrolatzen dituzte eta European jada hasi dira bertoko agentzia baten beharraz hitz egiten.

DANIEL UDALAITZ


ARAZO LARRIAK EKARRI DIZKIGU Euskal Herrira, Europa eta planeta osora oro har, 2008an sortutako krisi finantzario eta ekonomikoak; bai lan arloan eta baita gizartean ere. Irratiek, telebistak eta prentsak egunero astintzen gaituzte arrisku kalifikazio agentziak edo rating agentziak behin eta berriz ahotan hartuz. Zer dira agentzia

horiek? Zer egiten dute? Eta zein tzuk daude haien atzean?

Enpresen eta herrialdeen zorrari buruz agentzia horiek azaldu izan dituzten iritziek, ez beti objektiboak eta kasu batzuetan guztiz desitxuratuak, erakunde asko ezegonkortzea ekarri dute. Hortxe daude Enron,

Lehman Brothers eta banku islamiarren kasuak. Agentzia horiek nota onak eman zizkieten, baina hondoratu egin ziren. Azkeneko kasua, abuztuko sargorian munduari bira eman diona, Standard & Poor's agentziak AEBetako ekonomari emandako kalifikazioa izan da (AAA mailatik AA+ mailara).

Eztabaida bizia sortu da ozeanoa-



Standard & Poor's rating agentziaren egoitza nagusia Manhattan-en.

GETTY IMAGES

Zeintzuk daude atzean?

Rating agentziak ez dira inuzenteak, ezta neutralak ere. Haien atzetik interes ekonomiko eta finantzario zehatzak daude, eta bakoitzaren kapital eraketak erakusten du hori. Zein dira interes horiek? Ikus dezagun nola dauden osatuak AEBetako hiru konpainia nagusiak.

Standard & Poor's ehuneko ehunean kontrolatzen du McGraw-Hill talde editorial erraldoiak, batez ere enpresa munduko hezkuntza eta kudeaketari buruzko liburuak publikatzen ditu talde horrek. Fitch-Rating-en

%60a Frantziako Fimalac enpresaren esku dago; burtsan kotizatzen du eta Marc Ladreit Lacharrière enpresari ezagunaren jabetzakoa da. Beste %40 Hearst enpresaren esku dago, besteak beste *Esquiere*, *Elle* eta *Cosmopolitan* aldizkarien argitaratzailea. Moddy's-eko kapitala anitzagoa da: %12,5 Berkshire Hathaway-k du, Warren Buffet milioiunaren enpresa; %12,4 Capital World Investor-ek kontrolatzen du; eta %6 Rowe Price inbertsiogileen konpainiak. Gainerako guztia inbertsio funts askoren artean banatzen da.

ren bestaldean, eta kasualki, Washingtonek ikerketa hasi du S&P-ren kontra, zabor hipoteken zirian izandako arduragatik. Munduko lehen ekonomiari zartako bat ematen atrebitu da S&P, duen boterearen erakusle. Agian horregatik, Europan hasiak dira berezko agentzia bat sortzeko beharra aipatzen, hainbeste buruhauste ematen ari diren super konpainia horien atzaparretatik ihes egiteko.

Arriskuak baloratzen dituzten enpresak bakarrik?

Wikipediaren arabera rating agentziek —edo kredituak sailkatzeko agentziek— finantza produktu zehatzak kalifikatzen dituzten enpresak dira; beste enpresen, estatuen nahiz eskualdetako gobernuen aktiboei ere nota jartzen diete, bezeroak hala eskatuz gero.

Nota horiekin, emailearen kaudimena eta ez ordaintzeko arriskua baloratzen dute. Horretarako modelo ekonometrikoak erabiltzen dituzte, aldagai ezberdinez osatuak (pilatutako zorra, zor hori zein abia-duratan kitatzen den...). Datu horiek, subjektu baten ahalmen ekonomikoa aztertzeke balio diete. Hau da, datu horiek informatzen dute ea finantza produktu zehatz batean inbertitzea (altxor letrak, bonoak, akzioak...) arriskutsua ote den, eta neurtzen dute inbertitzaileak zein aukera dituen interesak kobratzeko eta produktua amaitzen deanean dirua berreskuratzeko.

Inbertitzaileek, diru-emaileek, inbertsio bankuek, bitartekariak, gobernuek... Horiexek erabiltzen dituzte gehien kredituaren arrisku balorazioak. Inbertitzaileentzat,

agentziok negozioa egiteko aukeren abanikoa zabaltzen dute eta arriskua neurtzeko gailu erabilerrazak eskaintzen dituzte. Normalki, erakunde batek zorra jaulki edo finantzazioa eskatu nahi duenean, agentzia bati agintzen dio bere burua aztertu dezala. Ekimen horrekin, inbertitzaileei eta mailegatzzaileei “lagundu” nahi diete interes-tasa egokia ezartzen. Hain zuzen horregatik, herrialdeek zorra jaulkitzen duten egunetan, kalifikazio agentziek herrialde horien notak publikatu ohi dituzte.

Oligopolioa

Munduan 74 kalifikazio agentzia inguru dauden arren, sektorea New Yorkeko hiru konpainiek osatutako oligopolio batek kontrolatzen du: Standard & Poor's (AEB), Moody's-Moody's Investor Service (AEB) eta Fitch-Fitch-Rating (AEB eta Erresuma Batua). Haien esku dago merkatuaren %90a. Horrez gain, garrantzitsua da Txinako Dagong Global Credit Rating agentzia.

AEBetako San Diego unibertsitateko irakasle Frank Partnoy-ren arabera, agentzia horien inguruan AEBetan sortutako araudiak euren arteko konpetentzia ezabatu du guztiz, eta merkatuko aktoreak derrigortu ditu soilik hiru konpainia handi horien zerbitzuak erabiltzera. 1929ko urriko *astelehen beltzaren*

ondoren zor jaulkitzaileek agentzia hauen zerbitzuak erosten hasi ziren. Bestela esanda, ikasleari nota jarri behar dion etsaminatzailearen soldata, ikasleak berak ordaintzen du, interes gatazka kolosala sortuz.

AEBetako SEC (Segurtasun eta Truke Batzordea) sozietate publikoko arduradunen esanetan, beste enpresa batzuek lehenago egin izan dutena egin dute agentzia hauek: “Aurreko hamarkadan erabat gezurrezkoak ziren kalifikazioak eman zituzten, eta hain zuzen, etekin gehien jaso zituzten urteak izan ziren”. Arazo hori gainditzeko proposamen ezberdinak egin izan dira. Batzuek eskatzen dute sinpleki agentzien inguruko araudi zurruna ezabatu dadila, merkatuari arnasa emateko. Baina jakina, konpainia pribilegiatuak ez dute neurri hori begi onez ikusten, eta alternatibagisa, merkatua bera garestituko luketen neurriak hartzea eskaini dute.

Kazetariak dira, ez ekonomistak

Bitxia dirudien arren, kalifikazio agentziak ez daude ofizialki finantza erakunde edo ekonomia elkarte gisa onartuak. Arazoak ekiditeko, kazetari agentzia moduan erregistraturik daude. Hau da, soilik informazio lana egiten dute. Ez daude, hortaz, auditoria enpresen arauetara lotuak; auditorietan txostenen garrantasuna gailendu behar da ezeren aurretik eta euren ondarearekin erantzuten dute aurreikusi ez den kiebrarik egonez gero. Aldiz, Lehman Brothersek 2008an ateak itxi zituenean, kalifikazio agentziek ez zuten krak horren zentimo bakar bat ere ordaindu. ■

**AEBetako araudiak
kalifikazio agentzien
arteko konpetentzia
ezabatu du guztiz**

Bilboko espazio publikoa

Harriaren hizkuntz politika

Soziolinguistika Klusterreko Hausnartu sarietan bigarren saria jaso zuen Galder Unzalu deustuarrek “Sugea dantzan: She’s fashion-etik Bilbao euskaraz-era” lanarekin. Bilboko espazio publikoaren diseinu eta kudeaketaz ari da eta komunikazioak zein euskarak duten lekuaz.

ZIHARA ENBEITA

Argazkiak: Galder Unzalu

“IDEOLOGIAK esan ezin duena idazten du harriak” esan zuen Slavoj Žižek pentsalariak Iruñean eta Galder Unzalu bat dator berarekin. Ideologia harrietan eraikitzen dela uste du, berdin klase, genero eta hizkuntz ideologia. Hirigintza liburu irekia dela, irakurtzeko aukera ematen duena. “Hiria barruraino sartzen zaigu eta horrek hizkuntz praktiketan eragiten du, era ez kontzientean askotan. Espazio batean gustura zaude edo ez”.

Bilboko Abandoibarrako hirigintzak berez ez omen die komunikazioari eta jende arteko harremanei laguntzen. Alondegia (diziplina antzeko gunea) ere, plaza estali moduan saldu arren “itxita dago, ez dago jesartzeko lekurik, iluna da...”.

Bilbo berri horrek komunikazioa errazten ez badu, are gutxiago euskarazko komunikazioa. Alondegian, kartelak elebitan egon arren, mediatekan langile euskaldunak eta jate-txeetako kartak euskaraz, Unzaluk uste du gune moduan ez dela euskararentzako abegikorra. Izen ofizialetik bertatik hasita. Gaztelania hutsez dago, *Albóndiga Bilbao*, tilde eta guzti. Alondegiak, duen aurrekontuarekin, sekulako programazioa lantzeko aukera dauka, “baina euskara ez da inon ageri, umeentzako ez bada edo literatura-rekin lotuta”. Euskarak asignazio funtzional eta espazial jakina duela dio. Bilbon moduan, baita Alondegian ere. Gauza berritzaileak, eztabaida teorikoak... gaztelaniaz egiten



Unzaluk Ibaizabal eta euskara alderatu ditu: ibaiaren irudi zikina aldatu ez bada ere bilbotarrek Ibaizabal erabili egiten dute. Euskarak, ibaia bezala, irudia garbitu behar du, estigma kendu, erabileraren poderioz.

dira. “Euskara dekoratiboa da. Hasieratik erabili duten aniztasunaren diskurtsoa justifikatzeko besterik ez”.

Etorkizunera begira sortu duten azpiegitura bakarrak ere ez du euskarazko izenik. Zubiarte eta Zubizuriren kasuan, Unzaluren berbetan, ez dira mundura begirako azpiegiturak. Kanpora so dauden eraikinen izenak gaztelaniaz edo ingelesez dira (Bilbao Exhibition Centre, Bilbao Arena). Ekitaldi handien kasuan beste hainbeste: Bilbao World Series, BBK Live... Eta zer esanik ez “Bilbao” marka bera. Eraikin osoak estaltzen dituz-

ten publizitate euskarrietan ere, Udalaren arautze faltagatik, euskararen presentzia anekdotikoa da.

Talde mutu

Bilboko Udalak euskara bultzatzen badu ere, oso gauza zehatzetan da hori, Unzaluren arabera, eta “euskarari benetan ez zaio indarrik eman nahi erabakiguneetan. Burmuin instituzionalean eta urbanistikoan leku oso zehatza dauka euskarak: euskal kultura tradizionala, umeak, jaiak... Euskara bai, baina zure txokoa, bestela arazo bihurtzen da”.

Shirley eta Edwin Ardenerrek emakumeak “talde mutu” gisa defi-

nitzen zituzten eta hala ikusten du euskaldungoa Unzaluk, erabakiguneetara sarerrarik ez daukan talde moduan. “Bilbon euskararen ezagutza maila ikusi eta erabilera %4koa baino ez izatea...”. Genero ikuspegitik hiria irakurriz gero, leku eta ordu zehatzetan emakumea ez da ongi etorria, hiriaren formak emakumea leku batzuetara bideratzen du eta beste batzuetara ez. Euskarari antzekoa gertatzen zaiola uste du.

Diskurtso hegemonikoaren arabera, “Bilbon ez da sekula euskaraz berba egin”. Denborarekin argi gelditu da hizkuntza endogenoa dela. Bilbon beti egin da euskaraz, baina asignazio funtzional eta espazial zehatza izan du: etxeko hizkuntza, intimitaterako. Bizitza publiko-
ra jauzirik ez du egin. “Erriberako azokan baserritarrekin, edo etxean, edo familiarekin euskaraz, baina kalean alboko erdaldunarekin erdaratuta”. Unzaluren iritzi, asignazio horiek egonkortzen ahalegin du da diskurtso hegemonikoa.

Hala ere, gaur egun, hizkuntz aniztasuna da nagusi eta gaztelania ez dakien bat baino gehiago bizi da Bizkaiko hiriburuan. “*En Bilbao castellano siempre*” horrek ez du balio. Bilboko Udala bera ere hasi da beste hizkuntza batzuk erabiltzen, “era testimonialean bada ere”. Errealitateak diskurtsoa gainditu arren, urtetan “ustezko egia horiek naturalizatu izanak” gure hizkuntz praktika baldintzatu du eta euskaldunek gaztelaniarekin lotu dute Bilbo. Trenetik atera bezain laster gaztelania hartu dute euren hizkuntzat.

Bilbora bizitzera etorritako hamaika lagun elkarrizketatu ditu Unzaluk eta Bilbo gaztelaniarekin lotzen duten laurak euskaldunak



Bilboko hirigintzak jende arteko komunikazioan nola eragiten duen aztertu du Unzaluk, eta era berean, horrek euskararen presentzian duen eragina.

dira. Bilbo euskara hutsarekin lotu duten biak, oster, atzerritarrak, euskara existitzen zenik ere ez zekitenak. Bi horiei, “hiria bera urratzeak, bertan bizitzeak, ekarri die Bilbo eta euskara lotzea”.

Peruarrak Gran Via errumanierarekin lotzen du; Gobernu Zibile-
ra askotan joan behar izan duelako eta han batez ere hizkuntza hori entzun duelako. Boliviarrak, oster, Bilbo eta euskara Arangoiti auzoan lotzen ditu, berez bilbotarrentzat erdalduna den auzoan. Kontua da Magisteritza eskola dagoela han eta lagun batekin eskolara egindako bisitan euskaraz entzun zuela gehiena. Horregatik Abandoibarran, adibidez, EHUKo campusa jarri izan balute askoz inguru euskaldunagoa litzatekeela uste du Unzaluk. Ez da kasualitatea, adibidez, Erripako jolas-parkean euskara asko entzutea.

Ibaizabal eta euskara biziberritzen

Mugak muga, euskara eta euskal kultura badoaz apurka-apurka lekuak bereganatzen, “etnikotasuna” galtzen. Lurdes Mendesi irakurri zion Unzaluk munduan artista mota bi daudela. Alde batetik estatubatuar eta alemaniar zuriak, gizon-
nekoak. Horiek artistak dira. Gai-

nontzekoak, aldiz, artista etnikoak. “Berak etnikoak zioen, baina, noski, emakumeak ere sartzen dira hor. Etnikotasuna boterearen marka da, jendea mailakatzeko erabiltzen duena”. Berdin “euskal” artekin ere. Baina dagoeneko batzuk galdu dute “euskal” hori, “euskarazko literaturaren indarraren eta onarpen sozialaren ondorio”. “Euskal” galtzeak hiriko parte bihurtu ditu, gizarteko pertsona erreferente. Ez dira adibide asko, baina bada zer bait bere ustez.

Teorikoek “apropiazio ez egoki” moduan definitzen dituztenak ere hor daude. Abandoibarra egonean gozatzeko diseinatuta egon ez arren, jendea bere txokoa bilatzen joan da. Berdin gertatu da euskararekin: “Euskalduna zubia-
ren azpian Deustuko jaietan txosna gunea jartzean, adibidez. Edota norberak egiten dituen apropiazio ez egokiak ere badira, erabakiguneetan euskaraz egiterakoan”.

Unzaluk Ibaizabal hartu du egin-
dako aurrerapausoen metafora bezala. Abandoibarrako ibaiertza, bere ustez, apropos eginda dago ibaitik urrutiratze, Europako hainbat hiritan gertatzen denaren kontra. “Bilbon ibaiaren irudi zikina ez da aldatu. Erabilgune moduan ez da onartzen, baina jendeak hori gainditu egin du”. Jendeak poliki-poliki apropiazio ez egokia bultzatu du; jaietako kukañak direla, piraguak, Psicobloc Series eskalada txapelketa, triatlloiak... Euskararentzat sinbolo baliagarria dela uste du Unzaluk. “Azpian egon da, onarpenik gabe, ezkutuan, baina faktore zehatz batzuei esker ateratzen ari da. Ibaia biziberritu den moduan euskara ere biziberritzen doa. Iru-
dia garbitzen, estigma kentzen. Hiriaren imaginarioaren erdian lekua lortu behar du euskarak”. ■

Babeslea: Usurbilgo Udala



Usurbilgo Udala

Herri hau sortzen segi dezagun euskaratik eta **euskaraz!**



Bea Salaberryk *Han eta hemen blogean* esanak: “Uda osoan zehar kontsultatu ditudan hainbat agenda kulturalak, ideia batzuk konfirmatu dizkidate, astebururo nun nahi badelarik zer dasta: sobera. Kasik lehia itxurak hartzen ditu aferak, ikusten denean iparralde bezalako eremu batean, egun berean dozena erdi ekimen desberdin antolatzen direla, antzekoak, publiko, helburu eta eduki berekin.

Gainera, hau inpresio bat baik ez bada ere, antolatzen denak, usu, badu eta betetzen du helburu bat eta bakarra. Izan ere, antolakunde anitzetan asutua dugu ekitaldi batzuk antolatzen ditugula dirua ateratzearen helburu nagusiarekin eta bestalde, beste batzuk beste helburu batzuekin, tarteka ekonomikoki galarazleak direnak. Bide horretatik egiten ditugunak biderkatzen ditugu, gastatzen den energia bezala. Diru iturri direnak burutzen segitu behar da maiz, konpentsatzeko

beste ekimen batzuen galtze ekonomikoak. Hori guziaz molde biziki konpartimentatuan. Eta loratzen dira agendak ikusgarritz, kontzertu eta pestaz, musika eta euskararen



ASEGARCE

egunez, erakusketa eta mintza egunez, sentsibilizazio eta dibulgazio saioz...”.

Xabier Euzkitzek *sustatu.com* webgunean esanak: “Urte asko daramatzagu ETBn euskal hiltunei gaztela-

niazko adierazpenak eskatzen, baita frantziar estatukoei ere. Nik neuk, pilota partidetan, hainbat aldiz jaso izan dut albistegietako editoreen mandatura, produkzio laguntzaileen bitartez: ‘zuzeneko konexioa itzuli ondoren Aimarri –edo Xalari– gaztelaniaz pare bat galdera egin behar zaizkio’. Behin baino gehiagotan kexatu izan naiz, baina beti men egin diot aginduari.

Berriki, talde batek jokaera horri buruzko argibideak eskatu ditu EITBren administrazio kontseiluaren bilera batean. Nik dakidala, ez da ezer aldatu. Talde horrek erabaki bat zabaldu eta sustatu nahi du: euskal hiltunek uko egin diezaiotela ETBn erdaraz adierazpenak egiteari. Nik neuk berebiziko poza hartuko nuke pilotariren batek purrustadaren bat egingo balit, neure kontraesanak bistaratz: ‘hi, Euzkitze, ez niri ETBn erdarazko adierazpenik eskatu! Izan hadi kontsekuente behingoz!’”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Kapitalaren diktadura

Abuztu honetan, beste behin, ikusi dugu Merkatuek edo Kapitalak –espekulaztaileak, inbertsiogile handiak, pentsio funts handiak, banka...– ez dutela oporrik hartzen. Finantzetan eta ekonomikoki ahulen dauden herrialdeak erasotzeko gai dira, eta baita AEBak bezalako potentziak ere. Kapitalaren diktadurak ez du mugarik, eta ordenagailuan klik egitearekin soilik kapaz da edozein herrialdeko ekonomia hankaz gora jartzeko. Abuztuan ikusi dugu hori, kalifikazio agentziek AEBen kontra egindako ekintzarekin. Eta oraintxe ikusi dugu Madril, PSOE eta PPK Konstituzioa erreformatzeko egindako paktuarekin, defizitari sabaia jartzeko. Hego Euskal Herriari ere eragingo dio, EAEko kontzertu ekonomikoa eta Nafarroako Hitzarmena praktikan baliogabetuz eta mozketak sozial gehiagori argi berdea emanez. Erreforma antisozial eta antinazionala euskaldun gutzientzat.

Kapitalaren diktadura horri ezer gutxi inporta zaizkio giza eskubideak, eskubide politikoak, osasuna edo

gizartearen ongizatea. Interesatzen zaion bakarra da egunero etekin gehiago pilotzea, bereziki langile eta herri klaseen bizkar. Interesatzen zaio gobernuak bilioika diru publiko txertatzea bankan, etekinak jasotzen segi dezan. Gobernuak belaunikatu egiten dira haren aurrean, eta pozik egon dadin, neurri antisozialak hartzen dituzte: defizitari muga jarri, pentsioak eta soldatak izoztu, osasun kopagoa, lan erreformak, enplegu prekarioa... Kapitalari, Afrikan gertatzen denak –Somalian eta beste “gose herrietan” dauden milioika hildakoak alegia– bost axola dio. Ondorioz, gobernuak ere begiak ixten dituzte gosete horren aurrean, beren obsesioa Merkatuak, Kapitala, asebetetzea delako. Baina Kapital horren egiturazko funtzionamendua esplotatzailea eta hiltzailea da, halaxe ari da erakusten.

Juan Mari Arregi

Irabazi eta galdu

ETA-k bere atentatuen etena publiko egin zuenetik urtebete iragan denean, nonahi ikusi daitezke mugimenduak bakegintza eta normalizazio politikoaren eremuan. Ez beti eragile bakoitzak nahiko lukeen indar eta ikuspegiarekin, baina bai norabide bertsuan: ETaren ondorengo euskal gizartea eraiki behar da eta zeregin horretan egon behar da. Donostiako Udaleko PPko zinegotzi Borja Semperren hitzok, adibidez, norabide horretan daudela pentsa liteke: "ETak erabakitzen badu armak behin betiko uztea eta egindako mina onartzen badu, PPk izango du behar den abilezia guztion artean etorkizuna eraikitzeko" (DV, irailak 4). Hilaren bukaerako Eusko Legebiltzarreko politika orokorraren eztatanda ere hor dago eta Lopez lehendakariak prest duen proposamenaren ardatzak norabide hori izango du, jadanik iragarri duen moduan.

Bakegintzaren eduki ugari ari da azaleratzen eta jadanik argi ikusten da memoriarena eta iraganeko jardun politikoaren irakurketa bateratua izango direla ardatzetakoak, eta eragileak lanean ari direla esparru horretan. Gaur gaurko jarrerak bateraezinak dirudite, baina edozelako elkarbizitzarako azkenean ezinbestekoa izango da oinarritzeko irakurketa bateratua eraikitzea, ahalik eta kontsentsu handienaren gainean: zenbat eta puntu gehiagoren inguruko adostasuna, elkarbizitza hori samurragoa izango da; zenbat eta gutxiago, etorkizun gaitzagoa eta epe ertainean gatazkak berpizteko aukera handiagoak.

Memoriarenak duen garrantziaren lekuko da *El País*-ek azken egunotan zein temati ari den ETaren



Artamugarriak artista taldeak bake prozesuaren alde 2007an Bardeetan egindako ekintza.

amaieraren bere tesi nagusia hauspotzen: Estatuaren jarrera irmoak amaitu du ETarekin eta puntu, eta batez ere polizia ekimenak, ez dago besterik. Joan den irailaren 4ko eta 5eko egunkarietan gai nagusi gisa azaldu zituen egunkariak. Joan den igandean: "Poliziak inguratua du gaizkile taldea" (aurretitulua). "ETak 50 terrorista bakarrik ditu aktibo" (lehen orrialdeko titulu nagusia). Astelehenean: "Gaizkile taldea inguratua (aurretitulua)". "ETA zapatu dute eta poliziak badaki zeintzuk diren geratzen diren lauak" (titulu nagusia, ETako presoen hitzetan jarria). Doinu bertsuan ari dira Lopez lehendakaria eta Ares, eta haiek entzunda, badirudi inork ez lukeela zalantzarik izan behar ohartarazteko Eusko Jaurlaritzaren tinkotasuna zein erabakigarria izen den ETaren amaierako bidean.

Zalantzarik gabe, ikuspegi horrek badu bere arrazoia eta ukazina da

Estatuaren errepresioak ETaren amaieran duen garrantzia. Baina hor beste eragile asko ere badira eta horietako nagusia ezker abertzalearen baitako barne eztatanda. Eztabaida horretan ere Estatuaren errepresioa garrantzitsua izan dela? Bai, baina ez erabatekoa. Eta, azkenik, hori guztia garrantzitsua izanik ere, ez da funtsezkoena.

NON DA orduan iltzearen gakoa? ETaren jardueraren atzean bideratu beharreko arazo politiko batzuk direla onartzean eta horiek ere, lehenago edo geroago, jarduera politikora eraman behar direla. Eta hori txukun egiten bada, eraiki ahal izango da datozen hamarkadetako elkarbizitzaren bizkarrezurra, honakoa litzatekeena: etorkizunean ez da

berriz biolentziarik eta mehatxurik erabiliko helburu politikoen defentsan. Eta txukun egiteak esan nahi du bakoitzak bere akatsak onartu behar dituela, bitartekoen erabileran, biktimen eremuan, lorpen politikoen gauzatzean...

Baina bakarrik ETak eta ezker abertzaleak aitortu behar badituzte beren akatsak eta Estatuak dena ongi egin badu, hondarrezko gazteluak eraikiko dira. Hiltzaileak eta beren lagunen aurrean demokratek irabazi badute eta kito, jai dago. Bakea Estatuaren garaipenaren logikaren ikusmoldetik bakarrik egiten bada, elkarbizitzak nekez izango du zutabe sendorik. Itsua da hori hala ikusten ez duenak, eta etorkizuneko arazoaren ereile. Halako prozesuetan beti galtzen da zerbait, eta asko irabazi. Zorionez, badirudi irabazle eta galtzaileen hainbat ikuspegi malgutzen ari dela apurka, baita publikoki ere.

PELLO ZUBIRIA

Krisiaren laugarren urtea eta Espainia erreskate atarian

Zapatero sozialdemokrata Estatuaren defizita Konstituzioan bertan zikiratzen, Sarkozy kontserbadorea aberatsenentzako zergak iragartzen... Badakite agintariek zer nahi duten, edo zer egin dezaketen, nork bere herrialdea krisi larritik ateratzeko? 2007tik hona dogmak desagertu dira, erantzun klasikoak agortu, eta pixkanaka beldurra nagusitzen hasi.

“GUK EZ DAKIGUN ZER OTE DAKI Zapaterok?” galdetu du abuztu bukaeran *Público* egunkarian Ernesto Ekaizer kazetari ondo informatuak. “Zeren eta –jarraitzen du *La carta robada* artikuluan–, Espainia-ko defizit fiskalari buruz Konstituzioa aldatzeaz egin duen iritzi aldaketa txundigarriak erakusten baitu gure lemazain handiak izozmendiari ton-torra ikusi diola eta hura saihestearren keinu gehiago egin behar zirela uste izan duela”.

2011ko udak Espainia baitako jendei opari mikatza ekarri die: Portugalek bezala Europari erreskatea eskatu beharra askoz hurbilago usaindu dute. Ez bakarrik Estatuaren zor publikoaren interesek gairitu dituztelako ametsik gaiztoenetako tasak; ustez konponbidean zirudien banku eta aurrezki kutxeen zorren moldaketa bera, orain berriro zintzilik omen dago.

Telebista kate frantsesak tarteka ikusteko zortea edo bizioa duten euskaldun bakanak ez ziren sobera harrituko. Apirilean bertan, kanal publiko batean eztabaidan ari zirela, Jacques Sapir ekonomialari ezagunak hitz lauz adierazi zuen Espainiak Europari salbamendua eskatzea urrian suertatuko ziola. Hegoaldeko euskaldunak igarri behar dio.

Baina 2011ko abuztua historiak ez du gogoratuko Espainiaren estutasu-

nengatik, are gutxiago Zapaterok eta Rajoyk beren arteko urruntasuna presaka eta muturka kontsentsu bilakatu zutelako. Askoz larriagoa izan da mundu osoko burtsen muturrekoa: lehen hamabost egunetan %18 galdu du Madrilgoak, %8 New Yorkekoak... Burtsan dirurik jokatzen ez duenari bost axola, baldin eta egoera orokorraren okerragotzearen seinale ez balitz. 2008an krisiaren lehen une zinez larria markatu zuen Lehman Brothersen hondoratzearen pareko astindua eragin omen du.

Non gaude, beraz, oraintxe bertan? 1929an hasi eta 1930eko hamarkada osoa hartu zuen krisiaren pareko batean sartuta gaudenez, asko dira 2008a konparatu dutenak 1929arekin. 2011z, aldiz, Espainiako eta Europako sozialdemokraten iritzia ondo laburbiltzen duen Joaquín Estefaniak –*El País* madrildarraren zuzendari izan da– uste du herrialde garatuak daudela AEB 1937an zeuden antzeko puntu batean.

1930eko hamarkadan Roosevelt presidenteak martxan jarri zuen *New Deal* egitarau famatua, gaur sozialdemokratek aitapontekotzat laudoriatzen duten Keynes ekonomialariak proposatu bezala inbertsio publiko erraldoiez ekonomia koma egoeratik ateratzeko. Kontua da 1937an gauzak nahiko bideratuta zeudelakoan Rooseveltek eten egin zituela pizgarri

Dorothea Lange argazkilariak erretratu gogoangarrietan bildu zituen AEBetan 1930eko hamarkadan krisiaren atzaparretan harrapatutako jendeak. Interneten *Flores y Palabras* blogak ipini duen honetan, Imperial Valleyko familia bat ageri da, 1937an. Urte horretan eten zituen Roosevelt presidenteak ekonomia mugiarazteko pizgarriak, krisiaren eraginak gairiduta zeudelakoan, eta bigarren atzeraldia sortu zuen. Keynes ekonomialariak orduan irakatsitakoak XXI. mendean ere baliagarri zirela zioten askok, batik bat sozialdemokratek, Lehman Brothersen porrotak eragindako lurrikararen ostean. Baina laster, munduko ekonomian nagusi diren finantza buruek, beren etekinak atxikitzea lehentasun hartuta, berriro politika neoliberalak ezarri dituzte denetan, orain arte egindako galera guztiak herritarrek pagatuko dituztelakoan.


publikoak, eta ohartzeko bigarren atzeraldi batean sartuta zeuden.

Oraingoan askoz laburragoa izan da keynesianismoaren bizia, 2008tik 2009ra doi-doi. Ondoren, munduko sozialdemokrata eta liberalek kontrakoa espero eta aldarrikatzen bazuten ere, ortodoxia neoliberalak egin da berriro guztiaren jabe.

Atzerakada Handia (*Great Depression*) ez zen AEBetan bukatu II. Mundu Gerra bitartean. Estefaniak ez gaitu lasaitu Keynesen hitzok hautatu dituenen: “Nire argudioak zuzenak direla frogatuko lukeen esperimendu handia egiteko, demokrazia kapitalista batean politikoki ezinezkoa dirudi gastu publikoa behar adinako eskala handian antolatzea, baldin eta ez bada gerra batek sortutako baldintzetan”.

Zeren bukaera

Krisiaz hainbeste idatzi duen Michel Husson ekonomialari ezkertiarrek berrikitan *Una crisis sin fondo* argitaratu du *Viento Sur* aldizkarian. Hussonen hitzetan, bi krisi handik astindu dute kapitalismoa uda honetan: Europako estatuen zorrek batetik, bestetik AEBen zorpetze ahalmenaz egondako eztabaida eta zalantzek. Berriro ekonomiaren estutasunak hain urrun iritsi izanak erakusten du 2007an hasi eta 2008an lehertutako krisia bukatzetik urruti dagoela.



Zergatik? Jorge Blazquez-ek *El País*en plazaratu duenez *El final de un modelo de crecimiento global* ari garelako ikusten begi aurrean. Ezker-tiar izateko motibo gutxi ditu Blazquezek, Espainian petrolio erreserba estrategikoak kudeatzen dituen CORES erakundeko presidentea da eta. Era oso grafikoan laburbildu du Blazquezek gaur herrialde garatuek ekonomia biziberritzeko daukaten dilema ezin konponduzkoa.

Gauza da azken hamarkada luzean herrialde aurreratuak gutxi hazi direla, urtean %1,9 besterik ez, eta aldiz goraka datozenak – “emergenteak” – %6,2. Beraien hazkunde txikia izan arren, herrialde garatuek mugitu dute emergenteen beroaldia. Nola? Zorpean kontsumituz.

Urteotan Europa eta Ipar Amerikako familiek asko kontsumitu ahal izan dute, gero eta gehiago produktua atzeritik inportatuz, itxura batean mugarik gabekoa zuten zorpetzeko ahalmenari esker. Ordainetan, garabidean dauden herrialdeetako herritarrek egin behar zuten esportaziorako produzitu eta gainera beren aurrezkiz Europa eta Ipar Amerikakoen zorrak finantzatu.

2008an agortu zen garapen eredu hau, Blazquezen aburuz. Herritarren erosteko joera hozten hasi zenean, hasiera batean gobernuek ekonomia sustatzeko neurriak jarri zituzten martxan: kontsumoa erraztu, obra publikoa indartu... Ez zuen operazioak askorik iraun. Ondoren agintariak kontrako norabideari ekin zioten

errukirik gabe: gastu publikoak murriztu, ongizate gizartearen aurrerapenak desegin, langileen eskubi-deak suntsitu... Estatuek beren legetan zorpetzeari uko egiteraino.

“Azken hamarkadan –bukatu du Jorge Blazquezek– bizi izan gara ekonomia globalizatuan, non garabidean diren herrialdeek jartzen zuten hazkunde eta finantziarioa, eta garatuek kontsumoa eta zorra. Finantzen krisiak erakutsi du eredu hau amaierara heldu dela. Baina krisi honen itzalak arindutakoan, galdera hau geratuko da: zein hazkunde eredu nagusituko da eta zein sektore eta herrialde aterako dira irabazle egoera berrian?”

Alabaina, “krisiaren itzalak arindutakoan” esatea hitz egiteko postura bat da, inork ez dio irtenbiderik ikusten honi. ATTAC erakunde altermundialistako buruzagi Eric Tossaintek dio krisiak hamarkada bat edo bi iraunen duela. Antzeko kalkulak egiten dituzte ezkerretik beste batzuek. AEBetako Yale unibertsitatean irakasle den Immanuel Wallersteinek dio: “Mundu mailan noraeza eta kaos garaiak datoz”.


Aldiz, ezkerretik honek ere, Theotonio dos Santos brasildarrak erantzun die benetako krisi latza ez dugula oraindik ikusi, mundu mailan begiratuta oraindik ekonomia hazten ari delako. Benetako krisia hamar urte barru ezagutuko omen dugu, eredu teknologikoa aldatzeko garaia iristen denean. “Egunotako krisia bromazkoa irudituko zaigu orduan”.

Bromazkoa oraingoa? Ea espainolek, tartean euskaldunek, nola zeharkatzen duten 2011-2012ko negu latza. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia




Iñaki Antiguñeda

Hitz handiak txikiekin gizenduz

Aurrekariak aurrekari bestelako egoera politikoan gara, geroan Euskal Herrian izan daitekeen egoeraren argigarri. Ezkerreko subiranisten talaiaatik ikusita, M-22an Bildu luze irauteko eta aldaketak eragiteko asmoz sartu zen politikaren arlo instituzionalera. Noiz arte iraunen du indarren koalizio modura? Prozesuaren abiadak argituko du, baina nago, tamaina honetako prozesu politiko guztiek berez eskatzen duten trantsizio luzea gogoan, denbora dezenterako koalizioa dela Bildu; izanaz nago, ez izenaz. Are gehiago, beste kide batzuk bildu beharko ditu, indarmetaketa bidez euskal eremu politikoan ezkerretik eraginkor aritzeko, Euskal Herria subjektu politikoa izateko bide ber-berean. Beste kontu bat da nola uztartu koalizioko kideen jarduera komuna dena eta ez dena, azken batez funtsezko ardatzek behar duten gutxienezko mamiaz gain beste-lako mamiak ere izan badirelako.

Hortaz, sakontze ideologikoa inoiz baino funtsezkoagoa dugu, ez baita geroko utzi daitekeena. Hots, gaur eta hemen, era askotako krisien aldian, ezkerria izatea zer den. Hitz gutxi eta handietatik hitz asko eta txikietara pasatzeko garaian gara. Mezuak birpentsatu, gaurkotu, mamitzekoa. Are gehiago, sakontze horretatik etorriko da aldaketen bide-orria, espazioan zein denboran gizona, gauzatzen joateko mugimendu sozio-politiko eraginkorrak behar duen sinesgarritasuna. Pertzepzio sozialaz nago; ezinbesteko faktore politikoa dena, instituzioetan luze irautekoa ere, nahikoa ez izan arren. Gainera, pertzepzio hori ezin mugatu Bilduren esparru sozialera, harago zabaldu behar da, apustuak ondo bidean. Aldaketak eragiteko heldu da Bildu, eta hori instituzioetako atak zabaldu eta herritarren esku hartzea



DANI BLANCO

bultzatzea baino gehiago da; proposamen zehatzak behar dira, landuak, honetaz eta hartaz, aldaketen bidean urratsak emateko modukoak.

Baina zer esanik ez, kontestuak ere baldintzatzen du norberaren bide-orria. Horra hauteskunde orokorretarako deia. Ezkerreko, adiera zabalean hartuta, indar subiranisten elkarlana beharrezko ikusten dut, hemen bezala harako ere. Baina neure dudak agertzen ditut aliantza abertzaleen artekoa izatera pasatzean, subjektu politikoarena ezin baitut gizarte-ereduarenetik bereizi. Hezurra eta mamia. Dudak ere hango instituzioetan egin beharreko jardueraz, subjektu politikoaren alde egiteaz gain; hango marasma-sarean endredatu ez gaitzen. Hortaz, asko estimatuko nuke horren gaineko debatea, argitze garaian garenez.


Kontestuak baldintzatu, bai. Dakartenari ezin izkin egin, berez serioak diren gaiak oso modu interesatu eta desitxuratuaren ekaritzen badituzte ere. Horra biktimena, irabazleak eta galtzaileak ikuspegitik iraganaren aldebakarreko irakurketa-rako bidean ezarri nahi duten sasi-mugarria. Tranpa,

baina hor dago. Gernikako Akordioak dioenerako bidean urratsak eman behar dira, aldebakarrean bada ere, letra handiari letra txikia gehituz, jarrera politiko berrituaren perspektiba serioaren seinale. Noiz edo noiz iraganaren irakurketa konpartitua izango da; ordurako gaurkoaren irakurketa ere konpartitua beharko, geroaren bidean. Irakurketa guztiak trazarik handienetan, behintzat, konpartituak; muinetan nork bereak. Baina horra ailegatzeko pertzepzio soziala funtsezkoa da. Helbide politiko horretan denborak ez du geologian duen balio bera; kontuan izan bezate batzuek fosil bihurtu baino lehen. ■

Gernikako Akordioak dioenerako bidean urratsak eman behar dira, aldebakarrean bada ere, letra handiari letra txikia gehituz, jarrera politiko berrituaren perspektiba serioaren seinale. Noiz edo noiz iraganaren irakurketa konpartitua izango da; ordurako gaurkoaren irakurketa ere konpartitua beharko, geroaren bidean

ASTE HONETAKO

zozketa



Txondorra erretegia

Harpidedun batentzat
lau laguntzako afaria

Bizkaia etorbidea, 9/9
Arrasate GIPUZKOA

www.txondorra-sagardotegi.com

1



Bilboko Euskal Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4
Bilbo BIZKAIA

www.euskal-museoa.org

2



EUREKA! zientzia museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.eurekamuseoa.es

3



Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Frantzia, 24
Gasteiz ARABA

www.artium.org

4



Nairobi tarra

2 mahai jolas opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2287. Argia)

BILBOKO KAFE ANTZOKIA

- Uxue Astigarraga Irureta (Zarautz)

JORGE OTEIZA FUNDazio MUSEOA

- Belen Irastorza Armendariz (Zaldibia)
- Jesus Lasa Arin (Donostia)
- Koldo Elorz Leoz (Iruñea)

KIROLAZ BADAKit

- Jesus Miguel Zabalo Bilbao (Galdakao)
- Jesus Gonzalez Esteban (Oizartzun)

DONOSTIAKO AQUARIUMA

- Eukeni Abasolo Galdeano (Gasteiz)
- Iñaki Goñi Irazusta (Donostia)
- Arantxa Aizpurua Arruti (Zarautz)
- Lorenzo Zubeldia Aierbe (Lizartza)

ESAIT kamiseta teknika

- Gema Mendieta Zelaia (Aulesti)
- Bittor Kortabitarte Diego (Bilbo)
- Peli Goia Escudero (Hernani)
- Anoetako Udal Liburutegia (Anoeta)
- Joseba Berriotxo Alberdi (Zornotza)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea



Aktualitatearen alde ezberdinak
konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea